

FASE ESPEZIFIKOA

HISTORIA

MODULUA

ARIKETAK

ERANTZUNAK

PROBA

ERANTZUNAK

BALIABIDEAK ETA
PROGRAMAZIOA



Modulua

HISTORIA

Unibertsitaterako sarbidea: 25 urtetik gorakoentzat

Gutxi gorabeherako iraupena: 90 ordu



AURKIBIDEA

1. AURKEZPENA ETA HELBURUAK

2. EDUKIAK

1. MULTZOA: XX. MENDEKO TENTSIO ETA GATAZKEN EMAITZAK (18 ordu)

Ezagutza-adierazleak

2. MULTZOA: GERRA HOTZA ETA BLOKEEN POLITIKA (9 ordu)

Ezagutza-adierazleak

3. MULTZOA: DESKOLONIZAZIOA (9 ordu)

Ezagutza-adierazleak

4. MULTZOA: MUNDU KOMUNISTA (18 ordu)

Ezagutza-adierazleak

5. MULTZOA: MUNDU KAPITALISTA (9 ordu)

Ezagutza-adierazleak

6. MULTZOA: BI MILURTEKOREN ARTEAN (27 ordu)

Ezagutza-adierazleak



1. AURKEZPENA ETA HELBURUAK

Hauek dira modulu honetan ikasleek lortuko dituzten gaitasunak:

- ☐ Gaur eguneko munduaren historiaren gertakizun adierazgarrienak ezagutu eta aztertu, denboran eta espazioan kokatuz eta haien orainaldian eragina nabarmenduz.
- ☐ Azken bi mendeetan zehar munduan gertatutako gertakizun ekonomiko, politiko, gizarteko, ea. aipagarrien zergati eta ondorioak ezagutu.
- ☐ Orainaldiaren egoerak eta arazoak aztertu beren hasiera eta geroko bilakaera ezagutzeko aukera ematen duen ikusmen historikoz.
- ☐ Informazio historiko argitasunez eta ordenaz erakutsi eta transmititu, horretarako ardatz kronologikoak, mapak, grafikoak, ea. erabiliz.
- ☐ Prozesu historikoan aldaketa eta iraunkortasun ideia ulertu, iraupen luze eta motzako zikloak desberdinduz.
- ☐ Izaera historikoko testu, mapa eta grafikoak estrukturalki moduan aztertu, adierazten faktore eta egoerak, baita sortzen diren testuingurua ere, kritikoki ulertuz eta interpretatuz.
- ☐ Izaera historikoko informazio adierazgarria lortu, informazio eta komunikazio teknologiak erabiliz.

Gizarte-zientzien esparruaren xedeak gizakiak okupatzen eta aldatzen duen espazioa ez ezik, bertan kokatzen diren gizartearen bilakaera historikoa ere barne hartzen du. Historiaren azterketak, oro har, eta historia garaikidearen azterketak, batik bat, oraina ulertzeko lagungarriak diren iraganari buruzko ezagutzak eskaintzen ditu, eta pentsamendu abstraktuaren eta formalaren berezko trebetasun eta teknika intelektualak gara daitezzen sustatzen du, hala nola behatzea, aztertzea, interpretatzea, ulertzeko eta adierazteko ahalmena izatea, eta zentzu kritikoa edukitzea. Giza zientzien barruan izaera egituratzailea duenez gero, pentsamenduaren ardatz bihurtzen da historia, eta giza jarduerarekin lotzen diren diziplina guztiak ulertzeko oinarri sendoa da.

Mundu garaikidearen historiaren moduluak historiaren azken mendeetan gizarteetan gertatu diren mota guztietako fenomeno konplexuak (politikoak, sozialak, ekonomikoak, kulturalak, artistikoak eta abar) ulertzeko eta aztertzeo aukera emango du; gainera, fenomeno horiek oraina ulertzeko eta etorkizuneko erronkei buruzko gogoeta sustatzeko beharrezko giltzarriak gaineratuko dituzte. Iraganeko fenomenoak, beren arteko loturak, eta eragin dituzten askotariko kausak ulertzen direnean soilik, hartuko dira arrazoizko erabakiak gaur egungo fenomenoaren aurrean, eta hartuko dira konpromiso arduratsuak gizateriaren gaur egungo erronka handiei irtenbide bat emateko. Era berean, teknologia berriek eta aurrerapen zientifikoek oso erritmo bizian eragiten dituzten aldaketa handien mende dagoen gaur egungo munduaren errealtate konplexuaz jabetuko dira parte-hartzaileak modulu honen bitartez. Horrez gain, beren giza dimentsioaz jabe daitezten eta etorkizun komuna modu aktibo eta arduratsuan eraiki dezaten sustatuko du moduluak.

Parte-hartzaileek jakintza historikoaren oinarriak ulertu beharko dituzte, kausen eta ondorioen askotariko azterketaren ikuspegitik egingo dute. Aztertzen duten gizartearen maila eta erregistro guztiak bildu nahi dira, gizarteak osotasun gisa funtzionatzen duela azaltzearen. Gainera, bere ondorioak behin-behinekoak eta amaitu gabeak direla hartu behar da kontuan, etengabe berriro aztertzeo prozesu baten barruan baitaude.

Gizarte-zientzien esparruaren barruan, honakoak dira mundu garaikidearen historiarekin gehien lotzen diren gaiak:



XX. mendean eta XXI. mendearen lehen hamarkadan maila desberdinean gertatu diren aldaketak (sozialak, kulturalak, ekonomikoak, politikoak, ideologikoak, eta abar).

Gaur egungo gizarteak modelatu dituzten gertaera eta prozesu garrantzitsuak.

Planeta-mailan, gizarte garaikideen berehalako etorkizunean proiektzioa duten gaur egungo aldaketa-prozesuak.

Metodologikoki, modulua lantzeko metodo historikoaren estrategia eta prozedura bereizgarriak jarriko dira abian (arazoak identifikatzea, hipotesiak egitea, informazioa bilatzea, informazioaren ebaluazio kritikoa egitea, ondorioak ateratzea, emaitzak aurkeztea, eta abar), betiere askotariko informazioak aztertu, alderatu eta barne hartuko dituzten ikertzeko eta laburtzeko jardueren aplikatuta.

Modulu honen eskaintza aintzat hartuko duen edozein prestakuntza-prozesuetarako programazioa egitean, ondoren zerrendatzen diren “*edukiak*” hartu beharko dira kontuan, eta “*ezagutza-adierazleak*” atalean deskribatzen diren maila eta hedadura izan beharko da aintzat. Izatez, azken horiek ebaluazio-irizpideak dira, eta, eduki-multzo bakoitzerako gai eta ereduak ariketa diren aldetik, pertsonen jakin behar duten edo egiten jakin behar duten alderdirik funtsezko eta kritikoenak adierazi nahi dituzte.

2. EDUKIAK

1. MULTZOA: XX. MENDEKO TENTSIO ETA GATAZKEN EMAITZAK (20 ordu)

Nazioen Elkartea eta nazioarteko harremanak:

- Gerraostea. Versaillesko Tratatuak.
- Locarnoko espiritua.
- NEren sorrera.
- NEren amaierako porrota.

Demokraziak eta totalitarismoen gorakada: Alemania eta Italia:

- Erregimen faxisten ezaugarriak: Hitler eta Mussolini.
- Alemania, Weimar-en Errepublikaren porrota.
- Alderdi naziak boterea eskuratzea: III. Reich-a.
- Nazismoa.
- Italia, faxismoaren sorrera eta gorakada Italian.
- Erromako martxa.
- Italia faxista.
- Stalin-en SESB.

II. Mundu Gerra eta bere ondorioak:

- II. Mundu Gerraren sorrera.
- Nazioen Elkarrearen porrota.
- II. Mundu Gerraren kausak.
- Gerra-mota berria: *Blitzkrieg*
- II. Mundu Gerraren faseak (1939-1945).
- II. Mundu Gerraren ondorioak.
- Jaltako eta Postdam-eko konferentzia.

Nazio Batuen Erakundea eta nazioarteko ordena berria:

- NEren sorrera.
- NEren helburuak eta antolaketa.
- NEren mendeko diren erakundeak.



- NBEk XX. mendearen bigarren erdian nazioartean izan duten agerpena.
- NBEren egoera gaur egungo nazioarteko gatazketan: Iran/Irak arteko gerrak; Jugoslavia ohiko gerra.
- Eskualdeko nazioarteko erakundeak: Amerikako Estatuak Erakundea eta Afrikako Batasunaren Erakundea. Arabiar Estatuak Liga.

EZAGUTZA ADIERAZLEAK:

- 1.1. *I. Mundu Gerraz geroztik munduan gertatu diren aldaketa eta gertaera garrantzitsuenak ezagutzea eta azaltzea.*
- 1.2. *XX. mendearen bigarren erdian mundu-mailan izan diren gertaera, protagonista, egoera eta prozesu garrantzitsuenak identifikatzea, aztertzea eta azaltzea, eta denboran eta espazioan kokatzea.*
- 1.3. *XX. mendearen lehen erdian mundu-mailan izan diren gerrak eta gatazkak gainditzeko abian jarri diren nazioarteko mekanismoak ezagutzea (instituzionalak, lege-gintzak eta abar).*

2. MULTZOA: GERRA HOTZA ETA BLOKEEN POLITIKA (10 ordu)

Blokeen politika:

- Bi blokeen sorrera.
- “Burdinazko hesia”: Berlingo harresia.
- Munduaren bipolarizazioa.
- Bi blokeen arteko krisialdi eta gatazkarik garrantzitsuenak.

Gerra hotza:

- Gerra hotzaren jatorria.
- Truman eta Jdánov-en doktrinak.
- Bloke militarrik: NATO eta Varsoviako Ituna.
- Gerra hotzean zehar bi blokeen artean izandako krisi eta gatazkarik garrantzitsuenak.
- Lasterketa nuklearra.

Lerrokatu gabeko estatuen mugimendua:

- 1973ko Aljer-eko konferentzia.
- Gatazkak, krisialdiak eta baterako existentzia.

EZAGUTZA ADIERAZLEAK:

- 2.1. *Superpotentzien (Ameriketako Estatu Batuak-SESB) nagusitasunaren garaiko eta mundua superpotentzien eraginpeko eremuen arabera banatzen zen garaiko gertaera, protagonista, egoera eta prozesu garrantzitsuenak identifikatzea, aztertzea eta azaltzea, eta denboran eta espazioan kokatzea.*
- 2.2. *XX. mendean nagusi ziren bi blokeetako edozeinetan lerrokatzeko edo ez lerrokatzeko prozesua bizi izan duten herrialdeetako baten bilakaera historikoa laburbiltzea, eta bere arazo kultural, ekonomiko, sozial eta politiko nagusiak identifikatzea.*

3. MULTZOA: DESKOLONIZAZIOA (15 ordu)

Asiaren iraultza eta Afrikaren independentzia:

- Deskolonizazioaren faktoreak.
- Mugimendu nazionalisten agerpena.



- 1955eko Bandung-eko konferentzia.
- India, Aljeriaren eta Kongo Belgikarraren kasuak.
- Afrika beltzaren deskolonizazioa.
- Azpigarapena eta Hirugarren Mundua
- Vietnameko gerra
- Kubako iraultza
- Neokolonialismoa

Ekialde Hurbilaren auzia:

- Palestinaren arazoa. Palestina 1947 eta 1948an.
- Arabiarren eta israeldarren arteko gerra (1948-1982).
- Camp David-eko itunak

Mundu islamiarra:

- Persiar golkoeko gerra.
- Mundu islamiarra: integrismo islamiarra goren unea.

EZAGUTZA ADIERAZLEAK:

- 3.1. *XX. mendearen bigarren erdiko deskolonizazio-aldian, mundu-mailan, izan diren gertaera, protagonista, egoera eta prozesu garrantzitsuenak identifikatzea, aztertzea eta azaltzea, eta denboran eta espazioan kokatzea.*
- 3.2. *XX. mendean deskolonizazio-prozesua bizi izan duten herrialdeetako baten bilakaera historikoa laburbiltzea, eta bere arazo kultural, ekonomiko, sozial eta politiko nagusiak identifikatzea.*
- 3.3. *XX. mendearen bigarren erdian Ekialde Hurbilean izan diren eta gaur egungo gatazka-egoera argitzen duten gertaera eta gertakari garrantzitsuenak ezagutzea, aztertzea eta azaltzea.*
- 3.4. *Integrismo islamiarraren oinarri ideologiko-erlijiosoak ulertzea, eta integrismo hori mundu-mailan kokatzea.*

4. MULTZOA: MUNDU KOMUNISTA (15 ordu)

SESB eta “herri-demokraziak”:

- Gerraosteko SESB. Stalin-etik Gorbachov-era bitartean.
- Krushev (1953-1964): desestalinizazioa.
- Breznev (1964-1982).
- Ekialdeko Europa eta Sobietar Batasuna.
- Orbita sobietarreko Europako herrialdeen ezaugarri komunak, politikoak eta ekonomikoak.
- 1956ko Hungariako krisialdia.
- 1968ko Pragako Udaberria.

Europako ekialdeko gaur egungo egoera:

- Berlingo harresiaren erorketa.
- 1989ko prozesu iraultzaileak eta beren ondorioak.

SESB desagitea:

- Gorbachov: glassnot eta Perestroika.
- 1991ko krisialdia.
- SESB desagitea
- Estatu Independenteen Erkidegoa.
- Yeltsin-en Errusia (1991-1997).
- Afganistan eta Txetxenia.



Txina: maoismotik gaur egunera:

- Gerra zibila (1945-1949).
- Mao Tse Tung.
- Aurrerakako Jauzi Handia eta Iraultza Kulturala.
- Deng Xiao Ping.
- Tiananmen-eko iraultza
- Gaur egungo Txina: egoera politikoa eta liberalizazio ekonomikoa.

EZAGUTZA ADIERAZLEAK:

- 4.1. *Potentzia sozialistak garatu eta desagertu diren aldian, mundu-mailan, izan diren gertaera, protagonista, egoera eta prozesu garrantzitsuenak identifikatzea, aztertzea eta azaltzea, eta denboran eta espazioan kokatzea.*
- 4.2. *XX. mendean “sozialismo erreala” bizi izan duten herrialdeetakoren baten bilakaera historikoa laburbiltzea, eta bere arazo kultural, ekonomiko, sozial eta politiko nagusiak identifikatzea.*
- 4.3. *Erregimen komunistako herrialdeen ezaugarri nagusiak ezagutzea, eta XX. mendean, eredu sozialista ezarri zenetik desagertu zen arte, herrialde horiek bizi izan duten bilakaera ulertzea.*

5. MULTZOA: MUNDU KAPITALISTA (10 ordu)

AEB eta mundu-mailako ordena berria:

- 1929ko krak-a
- Iparramerikako dolarraren nagusitasuna.
- Mundu kapitalista 1945 eta 1973 artean.
- 1973ko petrolioaren krisialdia.

Japonia eta Asiako hego-ekialdeko industria potentzia berriak:

- Japoniako mirari ekonomikoa.
- Asian gora egiten ari diren potentziak: Lau Dragoiak.

EZAGUTZA ADIERAZLEAK:

- 5.1. *Ekonomia kapitalistako mendebaldeko potentzien garapen-aldian, mundu-mailan, izan diren gertaera, protagonista, egoera eta prozesu garrantzitsuenak identifikatzea, aztertzea eta azaltzea, eta denboran eta espazioan kokatzea.*
- 5.2. *XX. mendean hainbat lurralde-esparrutan planteatu diren gatazken kausak, zailtasunak eta irtenbideak aztertzea.*
- 5.3. *XX. mendean garapen ekonomiko eta politiko hegemonikoak bizi izan dituen herrialdeetakoren baten bilakaera historikoa laburbiltzea, eta arazo kultural, ekonomiko, sozial eta politiko nagusiak identifikatzea.*

6. MULTZOA: BI MILURTEKOREN ARTEAN (20 ordu)

Iberoamerika XX. mendean:

- AEBen interbentzionismoa Iberoamerikan.
- Iberoamerikaren ezaugarri sozial eta ekonomikoak
- XX. mendeko azken hamarkadako egoera.
- Diktadura militarra Iberoamerikan
- XXI. menderako aukerak.



Europar Batasuna:

- Europako eraikuntzaren aurrekariak.
- Erromako Ituna.
- Europako Ekonomia Erkidegoa (EEE).
- 1987ko Europako Agiri Bakuna.
- 1993ko Maastricht-eko Ituna: Batasunaren ituna.
- Europar Batasunaren erakundeak.
- Europar Batasunaren zabalitzeak.
- Europako Konstituzioaren proiektua

Eztanda demografikoa:

- Hirugarren mundua.
- Ipar/Hego harremanak
- Ipar/Hegoen ezaugarri demografikoak
- Hazkundearen arazoak.
- Kairoko konferentzia (1994)
- Gainpopulazioa eta azpigarapena.
- Mundu-mailako populazio-mugimenduak: migrazioa
- Globalizazioa

Eragin zientifikoa eta teknologikoa:

- Hirugarren industria-iraultza
- Zientzia eta teknologiaren aurrerapenak
- Teknologia berriak.
- Zientzia eta etikaren arteko erlazioa.

Demokrazia eta giza eskubideak:

- Giza eskubideak eta gaur egungo erregimen politikoak.
- Demokraziak mendebaldean, Iberoamerikan, Asian eta Afrikan
- Gizarte-mugimendu berriak: bakezaletasuna, ekologismoa, GKEak, mugimendu feminista eta abar.
- Alderdi berriak: ezker berria eta alderdi berdeak.

EZAGUTZA ADIERAZLEAK:

- 6.1. *Sistema parlamentarioen antolamenduan eta erakundeetan oinarri diren printzipioak aztertzea, eta XX. mendean izan duten garapenean eta bilakaeran eragina izan duten faktoreak aztertzea, betiere demokraziak askatasunaren eta giza eskubideen errespetuan erdietsi dituen lorpenak kontuan hartuz.*
- 6.2. *Europar Batasunaren sorrera, oraina, eta iguripenak ezagutzea.*
- 6.3. *Gaur egungo Europar Batasunaren osaera eta integratzeko eta zabaltzeko prozesuan aurrera egiteko aukerak aztertzea, osanduan duen garrantzia eta presentzia baloratuz.*
- 6.4. *Europako esparruko erakunde nagusiak eta erkidegoaren dokumentu juridiko nagusiak ezagutzea. Europar Batasuneko Estatuaren parte hartzeko eta erabakiak hartzeko moduak ezagutzea, baita Europa eraikitzeko prozesuaren une kronologiko garrantzitsuenak ere.*
- 6.5. *Eztanda demografikoak, aldaketa teknologikoak eta sozialak, eta zientziak gaur egun dituen bide berriak eta milurteko berrian izango dituen ondorioak baloratzea eta aztertzea.*



**EZAGUTZA ADIERAZLE OROKORRAK ETA EDUKI MULTZO GUZTIETARAKO
ZEHARKAKOAK:**

- O.1. *Historiografiak sortutako oinarrizko kontzeptuak eta berariazko terminologia erabiltzea, informazio historikoa argi eta garbi, egoki antolatuta eta zorroztasun zientifikoaz aztertu, interpretatu, azaldu eta transmititzeko.*
- O.2. *Mundu garaikidearen historiako prozesu eta gertaera garrantzitsuenak ezagutzea eta aztertzea, espazioan eta denboran kokatuz eta horietan aldatzeko eta irauteko erritmoak hautemanez, eta prozesu eta gertaera horiek orainean duten eragina nabarmentzea.*
- O.3. *Izaera historikoko testuak, mapak eta grafikoak modu antolatuan aztertzea, eta dagozkien zirkunstantziak eta faktoreak eta sortu ziren testuingurua ulertzea eta kritikoki interpretatzea.*



EDUKIEN BLOKEETAKO EZAGUPENEN ADIERAZLEEI DAGOZKIEN ARIKETEN ADIBIDEAK

BLOKEA	EZAGUTZA-INDIKATZAILEAK	ADIBIDEAK
1	1.1. I.Mundu Gerraz geroztik munduan gertatu diren aldaketa eta gertaera garrantzitsuenak ezagutzea eta azaltzea.	1
	1.2. XX. mendearen bigarren erdian mundu-mailan izan diren gertaera, protagonista, egoera eta prozesu garrantzitsuenak identifikatzea, aztertzea eta azaltzea, eta denboran eta espazioan kokatzea.	1, 2
	1.3. XX. mendearen lehen erdian mundu-mailan izan diren gerrak eta gatazkak gainditzeko abian jarri diren nazioarteko mekanismoak ezagutzea (instituzionalak, legegintzakoak eta abar).	3
2	2.1. Superpotentzien (Ameriketako Estatu Batuak-SEBS) nagusitasunaren garaiko eta mundua superpotentzien eraginpeko eremuen arabera banatzen zen garaiko gertaera, protagonista, egoera eta prozesu garrantzitsuenak identifikatzea, aztertzea eta azaltzea, eta denboran eta espazioan kokatzea.	4
	2.2. XX. mendean nagusi ziren bi blokeetako edozeinetan lerrokatzeko edo ez lerrokatzeko prozesua bizi izan duten herrialdeetakoren baten bilakaera historikoa laburbiltzea, eta bere arazo kultural, ekonomiko, sozial eta politiko nagusiak identifikatzea.	5
3	3.1. XX. mendearen bigarren erdiko deskolonizazio-aldian, mundu-mailan, izan diren gertaera, protagonista, egoera eta prozesu garrantzitsuenak identifikatzea, aztertzea eta azaltzea, eta denboran eta espazioan kokatzea.	6
	3.2. XX. mendean deskolonizazio-prozesua bizi izan duten herrialdeetakoren baten bilakaera historikoa laburbiltzea, eta bere arazo kultural, ekonomiko, sozial eta politiko nagusiak identifikatzea.	7
	3.3. XX. mendearen bigarren erdian Ekialde Hurbilean izan diren eta gaur egungo gatazka-egoera argitzen duten gertaera eta gertakari garrantzitsuenak ezagutzea, aztertzea eta azaltzea.	8
	3.4. Integrismo islamiarraren oinarri ideologiko-erlijiosoak ulertzea, eta integrismo hori mundu-mailan kokatzea I.	9
4	4.1. Potentzia sozialistak garatu eta desagertu diren aldian, mundu-mailan, izan diren gertaera, protagonista, egoera eta prozesu garrantzitsuenak identifikatzea, aztertzea eta azaltzea, eta denboran eta espazioan kokatzea.	10
	4.2. XX. mendean "sozialismo erreala" bizi izan duten herrialdeetakoren baten bilakaera historikoa laburbiltzea, eta bere arazo kultural, ekonomiko, sozial eta politiko nagusiak identifikatzea.	11




	4.3. Erregimen komunistako herrialdeen ezaugarri nagusiak ezagutzea, eta XX. mendean, eredu sozialista ezarri zenetik desagertu zen arte, herrialde horiek bizi izan duten bilakaera ulertzea.	11, 12
5	5.1. Ekonomia kapitalistako mendebaldeko potentzien garapen-aldian, mundu-mailan, izan diren gertaera, protagonista, egoera eta prozesu garrantzitsuenak identifikatzea, aztertzea eta azaltzea, eta denboran eta espazioan kokatzea.	13, 15
	5.2. XX. mendean hainbat lurralde-esparrutan planteatu diren gatazken kausak, zailtasunak eta irtenbideak aztertzea.	14
	5.3. XX. mendean garapen ekonomiko eta politiko hegemonikoak bizi izan dituen herrialdeetakoren baten bilakaera historikoa laburbiltzea, eta arazo kultural, ekonomiko, sozial eta politiko nagusiak identifikatzea.	15
6	6.1. Sistema parlamentarioen antolamenduan eta erakundeetan oinarri diren printzipioak aztertzea, eta XX. mendean izan duten garapenean eta bilakaeran eragina izan duten faktoreak aztertzea, betiere demokraziak askatasunaren eta giza eskubideen errespetuan erdietsi dituen lorpenak kontuan hartuz.	16
	6.2. Europar Batasunaren sorrera, oraina, eta iguripenak ezagutzea.	17, 18
	6.3. Gaur egungo Europar Batasunaren osaera eta integratzeko eta zabaltzeko prozesuan aurrera egiteko aukerak aztertzea, munduan duen garrantzia eta presentzia baloratuz.	18
	6.4. Europako esparruko erakunde nagusiak eta erkidegoaren dokumentu juridiko nagusiak ezagutzea. Europar Batasuneko Estatuaren parte hartzeko eta erabakiak hartzeko moduak ezagutzea, baita Europa eraikitzeko prozesuaren une kronologiko garrantzitsuenak ere.	17, 18, 19
	6.5. Eztanda demografikoak, aldaketa teknologikoak eta sozialak, eta zientziak gaur egun dituen bide berriak eta milurteko berrian izango dituen ondorioak baloratzea eta aztertzea.	20



1. Azaldu

- Kokatu dagokion testuinguru historikoan 1914 eta 1938. urteen arteko munduko egoera ekonomikoa adierazten duen grafiko hau.
- Grafiko hau ikusita, zein da krisiaren urterik txarrena?



Munduko merkataritza eta ekoizpen industrialaren bolumena. M. Niveau, in "Historia de los hechos económicos".

2. Egin informazio honekin faxismoaren arrazoiak azaltzen dituen mapa kontzeptual bat.

Faxismoaren arrazoiak

Europar faxismoa nagusitzeko arrazoia gerra ostean azaltzen diren krisietan aurkitu beharra dago.

Krisi ekonomikoa dela eta, miseriak gizarte maila askotan eragin zuen, bai gerrak ekarritako hondamendiengatik, bai eta ezinbesteko ondasunak falta zirelako ere (gerran ekoiztutakoa kontsumorako ondasunetan birmoldatu beharra zegoen); nazioarteko merkataritza jaitsi egin zen eta produktu gutxi zegoenez, prezioak igo egin ziren.

Gizarteko krisiari dagokionez, soldadu izandakoak gaizki barneratu ziren bizitza zibilean eta milizia bat osatu zuten Italian masei diziiplina inposatzeko. Enpresariak milizia hauek langileen aldarrikapenei (grebei) aurre egiteko indar gisa erabiliko dituzte, izan ere, gerran aberastu ziren enpresa industrial handiek etekinak galduko dituzte nabarmen.

Demokrazia liberalean gertatutako krisiaren ondorioz, herrialde demokratikoez ez zuten gerra ekidin; estaturik gabeko nazionalitateek sortutako ezegonkortasuna potentzia demokratikoen interesen ondorioa izan zen. Baina herrialde liberalek neurri jasanezinetara behartu zuten Alemania gerrakoa konpontzeko eta umilazio sentimendu honek zaildu zuen, batez ere, Alemanian demokrazia ezartzea.



3. Atera ideia nagusienak Nazioen Elkarteko Itunaren Hitzaurretik eta kokatu labur-labur dagokion garaiaaren testuinguruan.

Nazioen Elkarteko Itunaren Hitzaurrea

“Itungile gorenek: Nazioen arteko lankidetzaz sustatzeko eta bakea nahiz segurtasuna bermatzeko honakoa kontuan eduki behar dela jakinik:

- Gerrara ez jotzeko hainbat konpromiso hartu behar dira.
- Nazioarteko harreman garbiak mantendu behar dira, justizian eta ohorean oinarritutako harremanak.
- Nazioarteko Zuzenbidearen aginduak zorrozki mantendu behar dira, hemendik aurrera Gobernuak jarrera eraginkor bat izateko arau baitira.
- Justizia nagusi izan eta Itunetako betebeharrak guztiak zehatz-mehatz errespetarazi behar dira herri antolatzaileen arteko harremanetan.

Nazioen Elkartea osatzen duen Itun hau onartzen dute.

Paris, 1919-4-28

Iturria: www.historiasiglo20.org

4. Aztertu informazio hau, esan testuak nazioarteko zein erakunderi egiten dion erreferentzia eta kokatu labur-labur dagokion testuinguru historikoan.

“(…)3.Artikulua. Itun honetako helburuak ahalik eta hobekien betetzeko, bitarteko propioak eman, banaka nahiz taldeka jardunez eta elkarri lagunduz eraso armatuaren aurrean banakako nahiz taldeko erresistentzia gaitasuna mantendu eta gehituko dute.

4. Artikulua. Edozein alderen ustetan alderen bateko luraren osotasuna, independentzia politikoa edo segurtasuna mehatxupearan balego, gainerako aldeei egingo zaie kontsulta.

5. Artikulua. Aldeek erabakitzen dute Europan edo Ipar Amerikan alderen bat edo gehiago erasotzen badute, alde guztien aurkako eraso gisa hartuko dutela eta, ondorioz, erabakitzen dute halako erasoren bat gertatuz gero, bakoitzak eta banakako nahiz taldeko bidezko defentsaren eskubidea erabiliz, Nazio Batuen Gutunaren 51. artikulua onartzen duenari jarraiki, erasota izan den alde edo aldeei lagunduko die eta jarraian, gainerako aldeekin adostuta, egoki irizten dion bakarkako ekintza burutuko du, baita indar armatua erabiltzea baldin bada ere, honela Ipar Atlantikoko lurraldean segurtasuna ezarri eta mantentzeko (...)”

Iturria: www.historiasiglo20.org




5. Azaldu

- Ondorengo testuak XX. mendeko zein gertaera historikori egiten dio erreferentzia?**
- Europar, bloke sozialistaren barnean, antzeko kasuak izan ziren. Horiek aipa ditzakezu.**

“Mendebaldeko muga ez da zuena bakarrik, lur sozialista osoarena ere bada. Mundu Gerraren ondorioa da eta SESBek oso prezio altua ordaindu behar izan zuen beragatik. Txekoslovakiak ez dauka inolako eskubiderik Gerra honen emaitzak arriskuan jartzeko... Herrialde sozialista bakoitzaren subiranotasunak ezin dio munduko sozialismoaren edo mugimendu iraultzailearen interesei aurre egin.”

Breznevek Dubceki idatzitako gutuna 1968an
("Historia del Mundo Contemporáneo". ECIR Ed. 268 or.)

- Begiratu arretaz mapa hau eta esan Europako zein herrialdek dominatu eta kolonizatu zituen zenbakiz identifikatuta dauden lurralde afrikarrak.**



Luis A. Ortega

<http://clio.rediris.es/actividades/Colonialismo/inicio.htm>



7. Azaldu labur-labur zein testuinguru historikotan kokatzen den dokumentu hau.

Algeriaren independentzia

“ Frantziako herriari erreferendum-legearen proiektua aurkeztu ondoren, maiatzaren 19ko gobernuaren adierazpenan aurreikusitako neurriak eskubide osoz hartzea proposatzen dizut. Honek, batetik, su-etena eta Algeriaren autodeterminazioa eta, bestetik, Frantzia herrialde honekin elkartzea dakar, baldin eta, mundu guztiak uste duen moduan, independentziaren alde erabakitzen badu. Gainera, Errepublikaren presidentearantzako (neurri) multzo hau aplikatzeko ezinbestekoa da bitartekoak izatea: beraz, herriari onar dezala eskatzen diot, honela neurri hauek hartzeko. Gaia hain da garrantzitsua nazioaren zuzeneko kontsentsu subiranoa eskatzen duela.

Zer esan nahi du, beraz, herritar guztiak sufragio bitartez onartzera gonbidatuak dauden erabakiak?


Lehenik eta behin, bakea esan nahi du. Ez dago gizaseme bakar bat bera ere honengatik poztu behar ez duenik. Frantziak Algeria buruaskia izatea nahi duen momentutik, gure armadak lurraldearen nagusitasuna ziurtatu duen momentutik, konkistatu egin duen momentutik, gure laguntzaren ordainetan Algeria berriak gure herrialdearen interesak errespetatu eta jatorri frantseseko komunitateari behar dituen bermeak ematen dizkion momentutik borrokak ez du dagoeneko inolako zentzurik.”

De Gaulle jeneralak telebistaz emaniko hitzaldi politikoa. 1962ko maiatzaren 26an “Historia del Mundo Contemporáneo”. ECIR Ed. 311. or.



8. Begiratu arretaz mapa hauek eta erantzun ondorengo galderak:

- NBERen 1947ko proiektuaren arabera, zein lurraldek osatu behar zuten Palestinako estatua?
- 1949ko gerraren ondoren Israelek NBEk ezarritako mugak gainditzen ditu. Zein estatuk okupatzen du Palestinako gainerako lurra?
- Zein lurralde okupatuz ituen Israelek 1967ko gerran?
- 1993an zein lurralderi eman dio Israelek autonomia?





9. Identifikatu islama erlijio gisa duten Afrikako 3 herrialde eta Asiako beste 3.



Erantzuna

Asia	Afrika

10. Konparatu bi mapa hauek eta esan zein izan diren muga aldaketa aipagarrienak.

Europa después de la 2ª Guerra Mundial



Europa en 1994





11. Irakurri arretaz hurrengo testua eta esan zer gertatu zen Txinan 1958. urtea baino lehen ondoren Maok hau esan zezan.

Gure iraultzak bata bestearen atzetik gertatu dira. Lehenik herrialde osoko boterea hartu zen 1949an, ondoren eta berehala nekazal erreforma antifeudala, nekazaritzaren kooperatibizazioa eta industria pribatuaren, merkataritzaren, artisautzaren eta abarren berreraikuntza soziala etorri zen (...). Orain Britainia Handia hamabost urtetan gainditzeko moduko iraultza teknologiko bat hasi behar dugu (...). Hamabost urte barru, elikagaien, burdinaren eta altzairuaren ekoizpena handiagoa denean ekimen askoz ausartagoei eutsi beharko diegu. Gure iraultzak borrokak bezala dira. Garaipen bakoitzaren ostean zeregin berrietan pentsatu behar dugu. Honela, koadro eta masak desio iraultzailez beterik egongo dira baina harropuzkeriaz bete gabe.

Mao Zedong


*60 puntu lan metodoei buruz, 1958ko urtarila.
Munduko Historia Garaikidea. ECIR Ed. 319 or.*

12. Lotu termino hauetako bakoitza dagokion definizioarekin.

- Kominform
 - ❖ 1980an sortutako enpresen arteko batzordea, Lech Walesa-ren gidaritzapean.
 - ❖ 1949an sortu zen eta produktu sozialistentzako nazioarteko merkatu bat sortu nahi zuen, produktu kapitalistarik gabe.
- CAME edo Comecom
 - ❖ 1947an sortu eta Belgraden egoitza zuen Informazio Bulegoa da. Helburua herri demokrazietako erakunde komunisten arteko harremanak koordinatu eta dinamikoagoak egitea da



13. Begiratu arretaz 1970 eta 1996. urteen artean petrolio barrilaren prezioak izan duen bilakaeraren grafikoa.



- Azaldu zerk eragin zuen grafikoan azaltzen den prezio igoera.
- Aipatu labur-labur igoera honek mendebaldeko herrialdeetan izan zituen ondorioak.
- Aipatu mendebaldeko herrialdeek krisiari aurre egiteko hartu zituzten neurrietako batzuk.



14. Kokatu testua dagokion garai historikoan eta azaldu garai hartako ezaugarriak.

Nahi izan ez genuen gerra

Zergatik Vietnam?

Asmo onenekin hasi zen guztia. II. Mundu Gerra ondorengo bi hamarkadetan Ameriketako Estatu Batuak mundu hondatu baten zatietatik nazioarteko orden berria eraikitzeko buru jarri zena. Europa berrindartu eta Japonia berriztatu zuten; komunismoa Grezian, Turkian, Berlinen eta Korean zabaltzea ekidin zuten, lehen bake hitzarmenak sinatu zituzten eta garapen bidean zeuden herrialdeentzat laguntza teknikoko programa bat jarri zuten martxan. Ameriketako Estatu Batuen babespean zeuden herrialdeek bakea, aberastasuna eta egonkortasuna zuten.

Indotxinan, berriz, Ipar Amerikak atzerrian parte hartzeko zituen asmo guztiak bertan behera geratu ziren. XX. mendeko Ameriketako Estatu Batuen nazioarteko esperientzian lehen aldiz nazio honek bere balore eta lorpenen arten zuen harreman zuzena, ia halabeharrezkoa, hausten hasi zen. Balore hauek hain modu unibertsalean aplikatzeak iparamerikarrak balore hauek zalantzan jarri eta, esate baterako, Vietnamera zergatik joan behar izan ziren galdetzea ekarri zuen.

Henry Kissinger. Diplomazia

15. Testuan azaltzen den informazioa irakurri eta azaldu labur-labur Japoniak II. Mundu Gerra ondoren izandako bilakaera ekonomikoaren arrazoiak.

Mirari japoniarra?

“Japonia gaur egun altzairua ekoizten duen munduko hirugarren herrialdea da Ameriketako Estatu Batuen eta Sobietar Batasunaren atzetik. Bere ontzioletan eraikitzen den tona kopurua munduko ekoizpenaren %40 da eta bertako tailerretan une hauetan 300.000 tonatako barkuak dauzka eraikitzen. Kontua da hau guztia hogeitaz urte eskasetan lortu dutela, Japonia guztiz zapalduta utzi zuen porrotaren ondoren ... Zein da arrakasta garbi honen arrazoiak? Lehenik eta behin, atzerriko berrikuntzak hartzeko gaitasun harrigarria dute. Izan ere, guztia behatzeko berezko zentzua dute eta edozertan jartzen dute arreta, baita huskeria txikienean ere, ez baitute ikasteko mugarik, perfekzioa lortu eta euren bizilagunak gainditzeko, onena hartu eta are hobea egiteko, honela, japoniarrak ezin lehiakorragoa dira nazioarteko merkatuan. Guztirako prest egote honi tresnarik onena gehitu behar zaio: etekin guztia ateratzeko prest dagoen laneskua. Honetaz gain, Japoniaren arrakastaren arrazoiak betidanik urritasunean bizi izana eta ohitura zorrotzak izatean oinarritzen dira. Honela azaltzen da, izan ere, euren lehiakortasuna oro har onartua bada ere, guztiek hain soldata baxuak onartzea. Zer axola du biziraupena, etxea eta janztekoa baldin badituzte!... Azkenik, talde zentzuak eta aspaldiko ohiturei jarraiki nagusiarekiko mendekotasunak ere “mirari japoniarra” azaltzen dute.

J. ROBERT, Impressions japonaises, revista Education et gestion, 8. zbkia. 1967.



16. Irakurri 1948ko “Gizakiaren eta Hiritarren Eskubideen Adierazpena” eta 1948ko “Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala”. Konpara itzazu. Zein ezberdintasun daude? Zein eskubide berri azaltzen dira 1948ko adierazpenan?

1. TESTUA

Antzinako Erregimenaren amaieran: Gizakiaren eta Hiritarren Eskubideen Adierazpena (1789ko abuztuaren 26a) **(Pasartea)**

Documents d'Histoire vivante. Dossier V, 5.fitxa

I. Gizonak askea keta berdina jaiotzen dira eta irauten dute eskubidetan. Bereizketa sozialak bakarrik onura komunean oinarritu daitezke.

II. Elkarre politiko ororen helburua gizonaren eskubide naturala keta preskribituezinak gordetzea da. Eskubide hauek askatasuna, segurtasuna, jabetza eta zapalkuntzarena urreko erresistentzia dira.

III. Subiranotasun ororen iturburua esentzialki nazioan datza. Inongo taldek edo norbanakok ezin dezake erabili nazioagandik berariaz sortzen ez den agintea.

IV. Askatasuna besteei kalterik egingo ez dien edozer egin ahal izatean datza. Horrela, gizonaren eskubide naturalen erabilerak ez du beste mugarik gizarteko beste kideei eskubide berrietaz gozatzeko ziurtatzen diena baino. Muga horiek soilik lege bidez zehaztu daitezke.

VI. Legea borondate orokorraren adierazpena da. Herritar guztiek dute legearen osaketan parte hartzeko eskubidea, pertsonalki edo beren ordezkarien bidez. Legeak bat bera izan behar du guztientzat, bai babesten duenean eta bai zigortzen duenean. Legearen aurrean herritar guztiak berdina izanik, maila postu eta enplegu publiko guztietan era berean onargarriak dira, bakoitzaren gaitasunaren arabera, eta bere dohain eta trebezia gain beste bereizketarik gabe.

VII. Gizonik ezin daiteke salatu, atxilotu edo atzeman, ez bada legeak erabakitako kasuetan eta honek preskribitutako moduetan. Agindu bidegabeak (arbitrarioak) eskatu, luzatu, bete edo betearazten dituztenak zigortuak izan behar dute, baina legearen arabera deitutako edo atxilotutako herritar orok berehala obeditu behar du: erresistentzia agertzeak errudun bilakatzen du.

IX. Gizon oro, errudun jotzen ez den bitartean, errugabetzat hartu behar da; eta ezinbestekotzat jotzen bada atxilotzea, bere atxilotzea ziurtatzeko beharrezkoa ez den gogortasun oro legeak zorrozki zigortu behar du.

X. Inor ez da xaxatu behar bere iritziengatik, erlijiosoak badira ere, nolaz eta iritzi horien agerpenak legeak ezarritako ordena publikoa nahasten ez duen.

XI. Pentsamenduen eta iritzien komunikazio askea gizonaren eskubide preziatuenetakoa da. Ondorioz, herritar orok libreki hitz egin, idatzi eta argitara dezake; askatasun honekin egin ditzakeen gehiegikerien arduradun izanik legeak araututako kasuetan.

XV. Gizarteak eskubidea du agente publiko orori bere administrazioaren berri eskatzeko.

XVI. Eskubideen bermea ziurtatuta eta botereen banaketa erabakita ez duen gizarteak ez du konstituziorik.

XVII. Jabegoa eskubide ezin bortxatuzko eta sakratua izanik, inori ezin dakioke kendu, behar publikoak, legalki egiaztatuta, nabarmenki eskatzen ez badu behintzat, eta kalteordain justu eta alde aurreko baten baldintzapean.

(Iturria: “Historia Universal Labor”.

8. liburukia: “textos y documentos de Historia Moderna y Contemporánea”)



2. TESTUA



derechos humanos para todos
50 ANIVERSARIO DE LA DECLARACIÓN UNIVERSAL DE LOS DERECHOS HUMANOS
1948-1998

Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala

1948ko abenduaren 10ean Nazio Batuen Biltzar Orokorak Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala onartu eta aldarrikatu zuen. Gertakari historiko honen ondoren, Biltzarrak Nazio Batuen kide diren herrialdeei Adierazpenaren testua publikatu zezatela eta "eskola eta bestelako ikastetxeetan banatu, kaleratu, irakurri eta komentatu zezatela, herrialde edo lurraldeen egoera politikoa dena delako dela ere" eskatu zien.

Hitzaurrea

Kontuan izanik munduko askatasuna, justizia eta bakea giza familiako kide guztien berezko duintasunean eta eskubide berdin eta ukaezinetan oinarritzen direla;

Kontuan izanik giza eskubideak ez ezagutzearen eta gutxienesten ondorioz, giza kontzientziari irain egiten dioten basakeriak gertatu izan direla; eta gizon-emakumeek, beldur eta gabezia ororen aske, hitz egiteko askatasuna eta sinesmen-askatasuna izango dituzten munduaren etorrera aldarrikatu dela gizakiaren helburu nagusi;

Kontuan izanik ezinbestekoa dela giza eskubideak zuzenbidezko erregimen batek babestea, gizakia tirania eta zapalkuntzaren aurkako azken irtenbidea den matxinadara jo beharrean aurkitu ez dadin;

Kontuan izanik ezinbestekoa dela, baita ere, herrialdeen artean harreman lagunkoiak bultzatzea;

Kontuan izanik Nazio Batuetako kide diren herriek gizakiaren oinarritzko eskubideetan, gizakiaren duintasun eta balioan eta gizonen eta emakumeen eskubideen arteko berdintasunean duten fedea tinko azaldu dutela Agirian; eta, askatasunaren ikuspegi zabalago baten barruan, gizarte aurrerakuntza sustatzeko eta bizitza-maila jasotzeko erabakita daudela adierazi dutela;

Kontuan izanik Estatu Kideek, Nazio Batuen Erakundearekin elkarlanean, gizakiaren oinarritzko eskubide eta askatasunen begirune orokorra eta eraginkorra ziurtatzeko hitza eman dutela;

Kontuan izanik emandako hitz hori osotasunean betetzeko garrantzi handikoa dela eskubide eta askatasun horiek berdin ulertzea;

BATZAR NAGUSIAK GIZA ESKUBIDEEN ALDARRIKAPEN UNIBERTSAL HAU EGITEN DU



Herri eta nazio guztiek izan beharreko jomuga legez, bai norbanakoek eta bai erakundeek. Aldarrikapen honetan etengabe oinarrituta, alde batetik, eskubide eta askatasun hauen begirunea bultza dezaten irakaskuntzaren eta hezkuntzaren bidez eta, bestetik, nazio mailan eta nazioarte mailan arian-arian neurriak hartuz, era eraginkorrean eta orokorrean ezar daitezzen ziurtatzeko, bai elkarkide diren estatueta herrien artean eta baita horien eskumenpean dauden lurraldeetan ere.

1. artikulua

Gizon-emakume guztiak aske jaiotzen dira, duintasun eta eskubide berberak dituztela; eta ezaguera eta kontzientzia dutenez gero, elkarren artean senide legez jokatu beharra dute.

2. artikulua

1. Gizaki orori dagozkio Aldarrikapen honetan adierazitako eskubide eta askatasunak, eta ez da inor bereziko arraza, larru-kolorea, sexua, hizkuntza, erlijioa, politikako edo bestelako iritzia, sorteria edo gizarteko jatorria, ekonomi maila, jaiotza edo beste inolako gorabeheragatik.

2. Ez zaio begiratuko gainera, pertsona zein herrialde edo lurraldetakoa den; ezta hango politikari, legeei edo nazioarteko egoerari, nahiz eta herri hori burujabea izan, besteren zainpeko lurraldea, autonomiarik gabea edo nola-halako burujabetasun-mugak dituen.

3. artikulua

Norbanako guztiek dute bizitzeko, aske izateko eta segurtasunerako eskubidea.

4. artikulua

Inor ez da izango besteren esklabo edo uztarpeko; debekatuta dago esklabutza eta esklaboen salerosketa oro.

5. artikulua

Ezin daiteke inor torturatu, ezta inori zigor edo tratu txar, anker eta lotsarazlerik eman ere.

(Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren pasartea)

17. Osatu Europar Batasuna sortzeko eman den atxikipen prozesuari buruzko koadro hau.

URTEA	ATXIKITUTAKO HERRIADEAK	GERTAKARIA	GARRANTZIA
1951	Benelux, Frantzia, Italia eta Alemaniako Errepublika Federala.	PARISEKO ITUNA	
1957			EEE sortzen da (Europako Ekonomia Erkidegoa)
1973			
	Grezia		
1986			
		EUROPAKO AGIRI BAKUNA	
1990	Alemanien bateratzea (Alemaniako antzinako)		



	Errepublika Demokratikoa sartzen da)		
			EE EB bihurtuko da (Europar Batasuna). Kohesio Fondoak sortzen dira. Batasun ekonomikorako eta Diru-Batasunerako egutegia.
1995			
		AMSTERDAMGO ITUNA	
2000			Instituzio komunen aginte banaketa berria herrialde berrien atxikimendua prestatzeko.
			EBko partaide diren herrialde gehienetan moneta komuna erabiltzen da (guztietan Erresuma Batuan, Danimarkan eta Suedian izan ezik)
2004			
2007	Errumaniaren eta Bulgariaren atxikipena aurreikusten da.		



18. Kokatu mapan Europar Batasuna osatzen duten herrialdeak eta kolorezta itzazu atxikipen dataren arabera.

- ☐ *Erromako Ituna (1957)*
- ☐ *1973ko atxikimendua (Bederatzien Europa)*
- ☐ *1981ko atxikimendua (Hamarren Europa)*
- ☐ *1986ko atxikimendua (Hamabien Europa)*
- ☐ *Alemanaren bateratzea (1990)*
- ☐ *1995ko atxikimendua (Hamabosten Europa)*
- ☐ *2004ko atxikimendua (Hogeita bosten Europa)*
- ☐ *2007rako aurreikusten dena*
- ☐ *Atxikimendurako aurreikuspenik gabe*





19. Irakurri testu hau eta erantzun egiten zaizkizun galderei.

EUROPAR BATASUNEAN ERABAKIAK HARTZEA

Europar Batasunean erabakiak hainbaten artean hartzen dira, “instituzioen triangeluak” hartzen baititu. Triangelu hau Europako Parlamentuak, Europar Batasuneko Kontseiluak eta Europako Batzordeak osatzen dute. Kontu-Auzitegia, Ekonomia eta Gizarte Lantaldea, Eskualdeetako Lantaldea, Europako Banku Zentrala(...) erakunde edo organoak dira eta hauek ere hainbat eremu espezifikotan hartzen dute parte.

Erabakiak hartzeko prozesuaren arauak itunetan zehaztuta daude eta Europar Batasunak jardun behar duen eremu guztiak hartzen dituzte. Oraingo honetan prozedura legegilea soilik ikusiko dugu eta alde batera utziko ditugu bi prozedura ezberdin: aurrekontua onartzearena eta nazioarteko akordioak lortzearena, hain zuzen ere.

Nahiz eta zenbait eremu, batez ere Ekonomia eta Moneta Batasunak, bereziagoak diren, erabakiak hartzeko hiru prozedura nagusi ezberdin daitezke. Prozedura hauek, kasuan kasu, erabakiak hartzea arautzen dute maila legegilean. Hauek dira:

- **Elkarrekin erabakitze prozedura.** Elkarrekin erabakitze prozedura Europar Batasuneko Itunak barneratu zuen (Maastricht-eko Ituna, 1992) eta Europako Erkidegoa Eratzeko Ituneko 251. artikulua arautzen du. Amsterdamgo Itunarekin batera (1997) bere aplikazio eremua sinplifikatu eta zabaldu zen. Prozedura honen arabera Batzordeak egindako proposamenaren bi irakurketa egin behar dituzte Parlamentuak eta Kontseiluak, bata bestearen ondoren eta bi erakunde legegile hauen artean ezadostasunak badaude, “Adiskidetzeko Lantalde” bat sortzera deituko litzateke. Lantalde hau Kontseiluko eta Parlamentuko ordezkariak osatuko lukete eta Batzordeak ere lagunduko luke akordio bat lortzeko helburuarekin. Akordio hau Parlamentuari eta Kontseiluari aurkeztuko zaio hirugarren irakurketa baterako eta, honela, onartzeko.
- **Aldeko irizpeneko prozedura.** Aldeko irizpeneko prozedura Europako Agiri Bakunarekin batera sortu zen (1986). Kontseiluak Europako Parlamentuaren onarpena jaso behar du garrantzia handiko erabaki jakin batzuk hartzeko. Europako Parlamentuak proposamen bat onartu edo atzera botu dezake baina ezin dezake zuzenketarik egin.

- **Aholku prozedura.** Aholku prozedurarekin Europako Parlamentuaren ebazpena eskatzen da. Ebazpena ematen duenean, Batzordeak proposamena zuzentzeko gaitasuna du. Ondoren, Kontseiluak proposamena aztertu eta bere horretan onartu edo zuzendu ondoren onar dezake. Hala ere, Kontseiluak Batzordearen proposamena bertan behera utzi nahi badu, aho batez erabakitakoa izan behar du.

Iturria:
<http://www.europa.eu.int>
(Material didaktikoak. Anaya-Haritz)



Azaldu zein den EBko erabakiak hartzeko prozesua:

1. Zein erakundek hartzen dute parte? Zer da “erakundeen triangelua”?
2. Zein dira EBan maila legegilean erabakiak hartzeko erabiltzen diren hiru prozedura nagusiak?. Azal itzazu.
3. Zein funtzio betetzen du “Adiskidetzeko Lantaldeak?”. Nork osatzen du lantalde hau?
4. Testuan aipatzen diren EBko zein beste erakundek har ditzake erabakiak “erakundeen triangelua” osatzen duten erakundeez gain?

20. Trantsizio demografikoari buruzko testua irakurri ondoren (A dokumentua), aztertu eta komentatu hazkunde demografikoaren aldien adierazpen grafikoa (B dokumentua). Kontuan eduki jaiotze eta heriotza tasek zein bilakaera izan duten denboran zehar eta zeintzuk diren bilakaera hori eragin duten faktoreak.

1. Zer da trantsizio demografikoa?
2. Bete ondorengo koadroa:

GARAIA	KRONOLOGIA	JAIOTZE TASA	HERIOTZA TASA	HAZKUNDE NATURALA
Aurreindustrial				
Trantsizioa (a fasea)				
Trantsizioa (b fasea)				
Geldialdia				

3. Esan zein faktorek eragiten duten jaiotza eta heriotza tasetan garai bakoitzean.
4. Informa zaitetz eta erantzun:
Trantsizio demografikoko zein garaitan aurkitzen dira zehazki herrialde garatuak? Eta azpigaratuak? Zer da **leherketa demografikoa**? Noiz hasi zen eta zein herrialderi eragin zion?



A DOKUMENTUA: TESTUA: Trantsizio demografikoaren garaiak

“Orokorrean hiru edo lau maila ezberdin daude trantsizio demografikoan baina autoreek izen ezberdinak ematen dizkiete. Guk hemen honako izan hauek emango dizkiegu: (1) aurreindustrialia, (2) trantsizioa eta (3) geldialdia. Aldi hauetako lehena, hots, aurreindustrializazioa, mendebaldeko zientzia eta teknologiaren eraginik izan ez zuten kultura tradizionalei dagokie. Iraultza Industrial aurreko kulturak hartzen ditu, baita mendebaldeko eragin handiegirik jasotzen ez duten kultura garaikideak ere. Garai hau kultura guztietan izan zen nagusi giza historian milurtetan zehar, azken bi-hiru mendeetan izan ezik.

Jaiotza tasak altuak izan ohi ziren, bizimodu txarra, haur asko hiltzen ziren, bizi-itxaropena ez zen 35 urte baino altuagoa eta heriotza tasak altuak eta gorabeheratsuak ziren. Heriotza eta ugalkortasun tasen artean nolabaiteko oreka zegoen eta, beraz, hazkunde naturala geldoa zen. Dena den, hazkunde potentziala altua zen. Orain hamarkada bat edo bi arte Afrika beltza zen, Sahara hegoaldean kokatutako lurraldea, trantsizio demografikoko lehen mailan zirauen azken hondarra. Baina orain dela gutxi orokorrean mendebaldeko medikuntza eta osasun zerbitzuak sartu direnez, hainbat tokitan heriotza tasa jaitsi egin da eta lurralde honek trantsizio izaera hartu eta bertako biztanleria gehiago da 2. mailakoa 1. mailakoa baino. Esan beharra dago, estatu afrikar hauetako askoren heriotza tasa fidagarriak ez badira ere, hurbilketek adierazten dutenaren arabera, herrialde hauetariko gehiengoak 1.000tik 30 baino gutxiagoko hilkortasun tasa gordinak dituztela.

Bigarren mailaren, hots, trantsizioaren ezaugarriak nagusiena jaiotzen eta heriotzen arteko desoreka da. Heriotzen jaitsiera jaiotzen jaitsiera baino lehenago eta azkarrago gertatzen da, ondorioz, hazkunde natural handia gertatzen da. Maila hau gosea eta gaixotasunak pixkanaka gutxitu egiten direlako eta askotan osasuna eta bizitza maila hobetzen direlako gertatzen da. Hilkortasun tasak berehala jaisten dira eta jaiotza tasa altuak izaten dira denbora batean: bi tasak elkar urruntzen dira (a fasea). Tarteko maila honetan ugalkortasuna kontrolatzeak jaiotza tasak murriztuko ditu aurrerago (b fasea). Honela, hilkortasun jaitsiera gutxitu egingo da hein batean. Bi tasak ia bat datozenek, hazkunde naturala atzeratzen da.


Hirugarren mailan, hots, geldialdian, bai ugalkortasuna bai hilkortasuna kontrolpean daude. Oro har esateko, gurasoek nahi dituztelako izaten dituzte haurrak. Heriotza tasak baxuak dira eta jaiotza tasak baxuak edo erdibidekoak. Maila hau lehenengoaren antzekoa izango da heriotzen eta jaiotzen artean oreka arrazoizko bat lortzen denean baina hazkunde naturala ez da gehiegizkoa, 2. mailan izango den bezala. Baina 1. eta 3. mailak hazkunde natural baxu edo erdibidekoa badute ere, 1. mailan hazkunde potentziala altua da eta 3. mailan baxua.”

Trewartha, G.: Biztanleriaren geografia.



B DOKUMENTUA:

GRAFIKOAK: *Trantsizio demografikoaren garaiak*




Anaya-Haritz Argitaletxea



EDUKIEN BLOKEETAKO EZAGUPENEN ADIERAZLEEI DAGOZKIEN ARIKETEN ERANTZUNAK

1. Azaldu

- Kokatu dagokion testuinguru historikoan 1914 eta 1938. urteen arteko munduko egoera ekonomikoa adierazten duen grafiko hau.
- Grafiko hau ikusita, zein da krisiaren urterik txarrena?



Munduko merkataritza eta ekoizpen industrialaren bolumena. M. Niveau, in "Historia de los hechos económicos".

Erantzuna:

- Gerra osteko lehen urteak zailak izan ziren I. Mundu Gerran parte hatu zuten herrialdeentzat baina pixkanaka nazioarteko ekonomia errekuaratzen joan zen. Ameriketako Estatu Batuak izan zen, inongo zalantzarik gabe, onura gehien jaso zituen potentzia. Ondoren, "20ko hamarkada zoriontsua" delakoa etorri zen. 1924tik aurrera Dawes Planarekin batera Ipar Ameriketako aurrerapen ekonomikoa hasi zen. Oparotasun aldia hasten da: gerrak industria berriak bultzatu zituen (autoak, abiazioa, elektritateak) eta energia iturriak indartu zituen (elektrizitatea, petrolio). Baina, batez ere, ekoizpen eta lana antolatzeko metodo berriak sortu zituen (taylorismoa eta estandarizazioa), hauek, grafikoan ikus daitezkeen bezala, industria kostuak murrizten zituzten, produktuen prezioak jaisten zituzten eta kontsumoa handitzen zuten.
- Indize guztietan eta, batez ere, taldeko ondasunen ekoizpenean maila baxuenak erakusten dituen urtea 1932. urtea da



2. Egin informazio honekin faxismoaren arrazoiak azaltzen dituen mapa kontzeptual bat.

Faxismoaren arrazoiak

Europar faxismoa nagusitzeko arrazoiak gerra ostean azaltzen diren krisietan aurkitu beharra dago.


Krisi ekonomikoa dela eta, miseriak gizarte maila askotan eragin zuen, bai gerrak ekarritako hondamendiengatik, bai eta ezinbesteko ondasunak falta zirelako ere (gerran ekoiztutakoa kontsumorako ondasunetan birmoldatu beharra zegoen); nazioarteko merkataritza jaitsi egin zen eta produktu gutxi zegoenez, prezioak igo egin ziren.

Gizarteko krisiari dagokionez, soldadu izandakoak gaizki barneratu ziren bizitza zibilean eta milizia bat osatu zuten Italian masei diziiplina inposatzeko. Enpresariak milizia hauek langileen aldarrikapenei (grebei) aurre egiteko indar gisa erabiliko dituzte, izan ere, gerran aberastu ziren enpresa industrial handiek etekinak galduko dituzte nabarmen.

Demokrazia liberalean gertatutako krisiaren ondorioz, herrialde demokratikoek ez zuten gerra ekidin; estaturik gabeko nazionalitateek sortutako ezegonkortasuna potentzia demokratikoen interesen ondorioa izan zen. Baina herrialde liberalek neurri jasanezinetara behartu zuten Alemania gerrakoa konpontzeko eta umilazio sentimendu honek zaildu zuen, batez ere, Alemanian demokrazia ezartzea.



Erantzuna:





3. Atera ideia nagusienak Nazioen Elkarteko Itunaren Hitzaurretik eta kokatu labur-labur dagokion garairen testuinguruan.

Nazioen Elkarteko Itunaren Hitzaurrea

“Itungile gorenek: Nazioen arteko lankidetzaz sustatzeko eta bakea nahiz segurtasuna bermatzeko honakoa kontuan eduki behar dela jakinik:

- Gerrara ez jotzeko hainbat konpromiso hartu behar dira.
- Nazioarteko harreman garbiak mantendu behar dira, justizian eta ohorean oinarritutako harremanak.
- Nazioarteko Zuzenbidearen aginduak zorrozki mantendu behar dira, hemendik aurrera Gobernuak jarrera eraginkor bat izateko arau baitira.
- Justizia nagusi izan eta Itunetako betebeharrak guztiak zehatz-mehatz errespetarazi behar dira herri antolatzaileen arteko harremanetan.

Nazioen Elkartearen osatzen duen Itun hau onartzen dute.

Paris, 1919-4-28

Iturria: www.historiasiglo20.org

Erantzuna:

Pariseko Bake Konferentzian herrialde guztiek ikusten zuten nazioarteko politika bideratuko zuen erakunde bat sortzeko beharra zegoela.

Laburtuz, Nazioen Elkarteko Itunaren Hitzaurreak herrialde ezberdinek duten interesa azaltzen du, alegia, aurrerantzean nazioarteko harremanak XIX. mendekoak ez diren oinarrien arabera bideratu daitezela. Hona oinarri horietako batzuk:

- Herrialdeen arteko isilpeko hitzarmenak baztertzea.
- Estatuen arteko negoziazioen bitartez armagabetze orokor bat lortzea.
- Gerrari uko egitea.
- Estatuen arteko bitartekari prozedurak sortzea ezberdintasunak argitzeko.
- Etab.

Aipatzekoa da hitzaurrean “elkarlana” eta “justizia” terminoak azaltzen direla, gerra amaieran bakea sinatzea baino gehiago esan nahi baitute.

Nazioen Elkartearen amaiera Hitlerren Alemaniak Europako lurraldeak etengabe erasotzen zituelako etorri zen. Europako potentzia handiek ez zuten behar besteko arreta jarri eta honek guztiak II. Mundu Gerra ekarri zuen.



4. Aztertu informazio hau, esan testuak nazioarteko zein erakunderi egiten dion erreferentzia eta kokatu labur-labur dagokion testuinguru historikoan.

“(…)3.Artikulua. Itun honetako helburuak ahalik eta hobekien betetzeko, bitarteko propioak eman, banaka nahiz taldeka jardunez eta elkarri lagunduz eraso armatuaren aurrean banakako nahiz taldeko erresistentzia gaitasuna mantendu eta gehituko dute.

4. Artikulua. Edozein alderen ustetan alderen bateko luraren osotasuna, independentzia politikoa edo segurtasuna mehatxupean balego, gainerako aldeei egingo zaie kontsulta.

5. Artikulua. Aldeek erabakitzen dute Europan edo Ipar Amerikan alderen bat edo gehiago erasotzen badute, alde guztien aurkako eraso gisa hartuko dutela eta, ondorioz, erabakitzen dute halako erasoren bat gertatuz gero, bakoitzak eta banakako nahiz taldeko bidezko defentsaren eskubidea erabiliz, Nazio Batuen Gutunaren 51. artikulua onartzen duenari jarraiki, erasota izan den alde edo aldeei lagunduko die eta jarraian, gainerako aldeekin adostuta, egoki irizten dion bakarkako ekintza burutuko du, baita indar armatua erabiltzea baldin bada ere, honela Ipar Atlantikoko lurraldean segurtasuna ezarri eta mantentzeko (...)”

Iturria: www.historiasiglo20.org

Erantzuna:

Testuak erreferentzia egiten dion erakundea NATO da (Ipar Atlantikoko Itunaren Erakundea). Erakunde hau 1949ko apirilaren 4ean sortu zen Washingtoneko Itunaren bitartez eta Ameriketako Estatu Batuek bultzatuta. Helburua sobietarrek Europan zuten presentziari aurre egitea zen, horretarako base militarrek modu estrategikoan jarritz eta etengabe armamentuen politika bat eramanez. Erakunde honen partaide ziren herrialdeak honako hauek ziren: Belgika, Kanada, Danimarka, Frantzia, Islandia, Italia, Luxenburgo, Holanda, Norvegia, Portugal, Erresuma Batua, Ameriketako Estatu Batuak, Grezia eta Turkia (1952), Alemaniako Errepublika Federala (1955) eta Espainia (1982).

II. Mundu Gerra amaieran aliatuak ez ziren akordio orokor batera iristeko gai izan eta euren diferentziak mundua bi bloketan, bai geografikoak, bai ideologikoak, banatuz islatu zituzten. Mendebaldeko blokea Atlantikoaren eta Ameriketako Estatu Batuen inguruan kokatzen zen eta ekonomia kapitalista nahiz alderdien pluraltasuna zituen. Ekialdeko blokea, berriz, SESBen inguru eta boterepean zegoen eta komunista eta antikapitalista zen. Bere helburua Europako herri demokraziak eta mendebaldeko alderdi komunistak babestea zen.

Etsaitasun honek bi alderdietan defentsarako erakunde militarrek sortzea ekarri zuen: NATO (iruzkindutako testuan azaltzen da) eta Varsoviako Ituna.

Une honetatik aurrera, munduko oreka politikoa indar nuklearraren eta armamentuen norgehiagokan oinarritu zen.



5. Azaldu

- a) *Ondorengo testuak XX. mendeko zein gertaera historikori egiten dio erreferentzia?*
- b) *Europar, bloke sozialistaren barnean, antzeko kasuak izan ziren. Horiek aipa ditzakezu.*

“Mendebaldeko muga ez da zuena bakarrik, lur sozialista osoarena ere bada. Mundu Gerraren ondorioa da eta SESBek oso prezio altua ordaindu behar izan zuen beragatik. Txekoslovakiak ez dauka inolako eskubiderik Gerra honen emaitzak arriskuan jartzeko... Herrialde sozialista bakoitzaren subiranotasunak ezin dio munduko sozialismoaren edo mugimendu iraultzailearen interesei aurre egin.”


Breznevek Dubceki idatzitako gutuna 1968an
("Historia del Mundo Contemporáneo". ECIR Ed. 268 or.)

Erantzuna:

1. Testuak 1968ko Txekoslovakiako "Pragako udaberria" deritzanari egiten dio erreferentzia. Herrialde honetako lehen ministroa, Dubcek, komunismoa askatasunarekin arintzen saiatu zen, gizarte komunistaren eredu berri bat sortzen saiatu zen, "komunismo gizatiar bat". Beste alderdi politikoak eta sindikatuak legeztatzen hasi zen, prentsa eta irratiko zentsura kendu zuen, langileak greba egiteko eskubidea onartu zuen eta atzerrira bidaiatzeko askatasuna eman zuen. SESBek eta bertako buruak, Breznevek, 1968ko abuztuaren 21ean Varsoviako Itunaren armadak herrialdea lehenbailehen okupa zezala erabaki zuten, protestak zapaldu zituzten eta Txekoslovakiako alderdi komunista nahiz honen burua gogor zigortu zituzten.
2. Kasu berak ez baina SESBren babes hertsia zalantzan jarri zeneko kasuak badaude, esaterako, Berlinen (1953). Hemen armada errusiarrak errepresio gogor batekin erantzungo du. Urte batzuk beranduago, 1961ean Berlingo Harresia eraikitzen hasten dira. Beste kasu bat 1956ko Hungariako krisia izan zen. Mugimendu hau ere armada sobietarrak indarkeriaz zapaldu zuen eta hildako eta errefuxiatu ugari sorrarazi zituen.



6. Begiratu arretaz mapa hau eta esan Europako zein herrialdek dominatu eta kolonizatu zituen zenbakiz identifikatuta dauden lurralde afrikarrak.



Luis A. Ortega

<http://clio.rediris.es/actividades/Colonialismo/inicio.htm>

Erantzuna

1	
2	
3	
4	
5	
6	
7	

Erantzuna:

1	ALEMANIA
2	BELGIKA
3	FRANTZIA
4	BRITAINIA HANDIA
5	ITALIA
6	ESPAINIA
7	PORTUGAL



7. Azaldu labur-labur zein testuinguru historikotan kokatzen den dokumentu hau.

Algeriaren independentzia

“ Frantziako herriari erreferendum-legearen proiektua aurkeztu ondoren, maiatzaren 19ko gobernuaren adierazpenan aurreikusitako neurriak eskubide osoz hartzea proposatzen dizut. Honek, batetik, su-etena eta Algeriaren autodeterminazioa eta, bestetik, Frantzia herrialde honekin elkartzea dakar, baldin eta, mundu guztiak uste duen moduan, independentziaren alde erabakitzen badu. Gainera, Errepublikaren presidentearentzako (neurri) multzo hau aplikatzeko ezinbestekoa da bitartekoak izatea: beraz, herriari onar dezala eskatzen diot, honela neurri hauek hartzeko. Gaia hain da garrantzitsua nazioaren zuzeneko kontsentsu subiranoa eskatzen duela.

Zer esan nahi du, beraz, herritar guztiak sufragio bitartez onartzera gonbidatuak dauden erabakiak?

Lehenik eta behin, bakea esan nahi du. Ez dago gizaseme bakar bat bera ere honengatik poztu behar ez duenik. Frantziak Algeria buruaskia izatea nahi duen momentutik, gure armadak lurraldearen nagusitasuna ziurtatu duen momentutik, konkistatu egin duen momentutik, gure laguntzaren ordainetan Algeria berriak gure herrialdearen interesak errespetatu eta jatorri frantseseko komunitateari behar dituen bermeak ematen dizkion momentutik borrokak ez du dagoeneko inolako zentzurik.”

*De Gaulle jeneralak telebistaz emaniko hitzaldi politikoa. 1962ko maiatzaren 26an
“Historia del Mundo Contemporáneo”. ECIR Ed. 311. or.*

Erantzuna:


Frantziak Indotxina eta ohorea galdu ondoren (1954), nazionalismo algeriarra berpiztu eta independentzia lortzeko gerrilla gerra bat hasi zuen (1954-1962). 1954. urtean FLN (Nazio Askapenerako Frontea) sortu zen, Ben Bella zen gidarietako bat. Mugimendu hau Bandung-eko Konferentziara joan zen (1955). Gerra oso gogorra da eta Frantziaren iritzi publikoaren gehiengoak Algeriari independentzia eman behar zaiola uste du. Neurri honen kontra kolonoak daude (milioi bat): Algerian finkatuta dauden frantsesak eta kolonian finkatuta dagoen armada frantsesa.

De Gaulle jeneralak FLNrekin elkarriketan hastea erabaki zuen koloniar independentzia emateko. Kolonien erreakzioa oso indartsua izan zen, honela, OAS sortu zuten, gobernuari presionatzeko erakunde terrorista eta Algeria eta Frantzia atentatuak egin zituzten. Algeriako armada frantsesa altxatu eta Paris parakaidisten armadarekin eraso eta gobernu zapalduko zutela mehatxatu zuten. De Gaullek egoera kontrolatu eta 1962an, erreferendum baten ostean, Algeriari independentzia eman zion. Milioi bat frantsesek algeriarren liskarren beldurrez jabetza guztiak utzi eta Frantziara alde egin zuten. Algeriak frantses kutsuko Konstituzio demokratiko bat publikatu zuen eta erreforma programa bat hasi zuen sozialismo islamiarraren ideologiaren arabera. Lehenengo presidentea FLNko burua izango da, Ben Bella.



8. Begiratu arretaz mapa hauek eta erantzun ondorengo galderak:

- NBERen 1947ko proiektuaren arabera, zein lurraldek osatu behar zuten Palestinako estatua?
- 1949ko gerraren ondoren Israelek NBEk ezarritako mugak gainditzen ditu. Zein estatuk okupatzen du Palestinako gainerako lurra?
- Zein lurralde okupatuz ituen Israelek 1967ko gerran?
- 1993an zein lurralderi eman dio Israelek autonomia?



Erantzuna:

- Guztira hiru gune: Zisjordania, Gazako zerrenda hegoaldera Egiptorekin muga eginez luzatzen dela eta iparraldean beste gune bat Libanoren muga ondoan.
- Jordania.
- Sinai Egipton; Zisjordania, Gaza eta Golan Gaina Sirian.
- Zisjordanian Jeriko eta Gazako zerrenda.



(Maparen iturria: Gizarte Zientziak, Geografia. SM Ed. 246. or.)

9. Identifikatu islama erlijio gisa duten Afrikako 3 herrialde eta Asiako beste 3.



Erantzuna


Asia	Afrika

Erantzuna:

Asia	Afrika
Indonesia	Maroko
Pakistan	Sudan
Iran	Txad



10. Konparatu bi mapa hauek eta esan zein izan diren muga aldaketa aipagarrienak.



Erantzuna:

Mugetan gertatzen diren aldaketa nagusienak 1989tik aurrera Sobietar Batasuneko bertako eta honen inguruko herrialdeetako gertakariekin daude lotuta:

- Alemania bateratuta dago (AEF eta AED).
- Txekoslovakia bi herrialdetan dago zatituta: Txekia eta Eslovakia.
- Jugoslavia ohia hainbat errepublikatan zatituta geratu da.
- Sobietar Batasun ohia Baltikoko errepublikak daude: Letonia, Estonia eta Lituania, baita Bielorrusia eta Ukraina ere.

11. Irakurri arretaz hurrengo testua eta esan zer gertatu zen Txinan 1958. urtea baino lehen ondoren Maok hau esan zezan.

Gure iraultzak bata bestearen atzetik gertatu dira. Lehenik herrialde osoko boterea hartu zen 1949an, ondoren eta berehala nekazal erreforma antifeudala, nekazaritzaren kooperatibizazioa eta industria pribatuaren, merkataritzaren, artisautzaren eta abarren berreraikuntza soziala etorri zen (...). Orain Britainia Handia hamabost urtetan gaitzitzeko moduko iraultza teknologiko bat hasi behar dugu (...). Hamabost urte barru, elikagaien, burdinaren eta altzairuaren ekoizpena handiagoa denean ekimen askoz ausartagoi eutsi beharko diegu. Gure iraultzak borrokak bezala dira. Garaipen bakoitzaren ostean zeregin berrietan pentsatu behar dugu. Honela, koadro eta masak desio iraultzailez beterik egongo dira baina harropuzkeriaz bete gabe.

Mao Zedong

*60 puntu lan metodoei buruz, 1958ko urtarrila.
Munduko Historia Garaikidea. ECIR Ed. 319 or.*

Erantzuna:

Maok proposatutako demokrazia berriaren garaia (1949-1953) bat dator erregimen berriaren ezarpen eta antolakuntza aldiarekin. Giza talde guztiak Txinako alderdi komunistaren gidaripean jartzen dira herrialdea berreraikitze eta garapen ekonomiko indartsu bat lortzeko.

1950ean SESBrekin elkarlan itun bat sinatu ondoren, Asiako historian inoiz ikusi gabeko nekazal berrikuntza jartzen da martxan. Latifundioen, nekazari burgesen edo monasterioei jabetza handiak kendu eta nekazarien artean banatuko dira.



Politika ekonomikoa inflazioari aurre egitera, administrazio fiskala berrantolatzera eta pixkanaka aurrekontuen oreka berrezartzera bideratuko da.

Hamabostaldiko I Planak (1953-1957) industria astuna eta lurraren kolektibizazioa lehenesten zuen. Ondorioz, ekonomia estatuarena egin zen maila guztietan. Industria astuna bultzatuko da nekazal sektorearen kaltetan. 1963tik aurrera nekazal sektoreari jarri zitzaion arreta berezia eta industria arina bultzatu zen.

12. Lotu termino hauetako bakoitza dagokion definizioarekin.


- | | |
|--------------------|---|
| ∞ Kominform | ❖ 1980an sortutako enpresen arteko batzordea, Lech Walesa-ren gidaritzapean. |
| | ❖ 1949an sortu zen eta produktu sozialistentzako nazioarteko merkatu bat sortu nahi zuen, produktu kapitalistarik gabe. |
| ∞ CAME edo Comecom | ❖ 1947an sortu eta Belgraden egoitza zuen Informazio Bulegoa da. Helburua herri demokrazietako erakunde komunisten arteko harremanak koordinatu eta dinamikoagoak egitea da |

Erantzuna:

- | | |
|--------------------|---|
| ∞ Kominform | ❖ 1980an sortutako enpresen arteko batzordea, Lech Walesa-ren gidaritzapean. |
| | ❖ 1949an sortu zen eta produktu sozialistentzako nazioarteko merkatu bat sortu nahi zuen, produktu kapitalistarik gabe. |
| ∞ CAME edo Comecom | ❖ 1947an sortu eta Belgraden egoitza zuen Informazio Bulegoa da. Helburua herri demokrazietako erakunde komunisten arteko harremanak koordinatu eta dinamikoagoak egitea da |
-



13. Begiratu arretaz 1970 eta 1996. urteen artean petrolio barrilaren prezioak izan duen bilakaeraren grafikoa.



- Azaldu zerk eragin zuen grafikoa azaltzen den prezio igoera.
- Aipatu labur-labur igoera honek mendebaldeko herrialdeetan izan zituen ondorioak.
- Aipatu mendebaldeko herrialdeek krisiari aurre egiteko hartu zituzten neurrietako batzuk.

Erantzuna:

- Petrolioaren prezioak batez ere arabiar eta israeldarren arteko laugarren gerraz gero igozten dira (Yom Kippur Gerra, 1973ko urriak 6). Berriz ere galdu ostean, herrialde arabiarrek petrolioaren lehen aldiz *arma politiko* gisa erabiltzea erabaki zuten. Urriaren 17an OPEP erakundeko ministroek (Lurralde Petrolio Esportatzaileen Erakundea) iragarri zuten ekoizpena hileroko %5 murriztuko zutela israeldarrek 1967ko "Sei Egunetako Gerra" delakoan okupatutako lurraldeetatik joan arte. Mendebaldeko herrialdeek, petrolioaren mende zeudenez, Israel presionatu eta joatera behartuko zutela espero zen. Hau ez zen honela gertatu eta petrolioaren prezioa izugarri igo zen: 3 dolarretatik 5 dolarretara eta bi hilabete beranduago barrila 10 dolarretan geratu zen, 1982an preziorik altuenera iritsi zen, 34 dolarretara eta data honetatik aurrera jaisten joan zen, 1996an 24 dolarretara iritsi zen arte.
- Igoera handi honek petrolioaren eta honen eratorrien (gasa, kerosenoa, lubrifikatzailea, asfaltoak, plastikoak, pinturak, esmalteak, ehun sintetikoak eta abarren) mende zeuden mendebaldeko herrialdeei eragin zien. Petrolioaren prezioaren igoerak produktu industrialengan eta zerbitzuengan eragin zuen modu automatikoan: produktuen kostuak igo zirenez, eskaria gutxitu egin zen. Produkzioa gutxitu egin behar izan zen, lanpostuak galdu ziren, enpresak itxi eta langabezia igo zen. Lehen ia langabeziarik egon ez eta 1989an, berriz, 32 milioi langileri eragiten zien mendebaldeko herrialde kapitalistetan.
- Konpontzeko saiakera asko egon dira baina ez dira beti arrakastatsuak izan, herrialdearen arabera izan da. Hartutako neurrien artean honako hauek dira aipatzekoak: inflazioa gelditzen saiatzea, petrolioaren pisua handia bada ere, ordainketa balantza orekatzen saiatzea, inbertsio publiko handiak langabezia arintzeko



asmoz, gastu publikoa murriztu eta partikularrek aurreztu eta burtsan inbertitu dezatela sustatu. Laburtuz, Europa mendebaldean abian jarri ziren neurriak hauek dira:

- Moneta politikan, interes tasak igotzea.
- Zerga politikan, zergak igo eta gastu publikoa mantentzea.
- Errenta politikan, soldadak mantendu eta enpresarien eta sindikatuen arteko akordioak bultzatu.
- Energia aurreztu dadila, horretarako, ikerketa eta bestelako energien erabilera bultzatuko da. Petrolioaren mendekotasun osoa izatea saihestu.

14. Kokatu testua dagokion garai historikoan eta azaldu garai hartako ezaugarriak.

Nahi izan ez genuen gerra

Zergatik Vietnam?

Asmo onenekin hasi zen guztia. II. Mundu Gerra ondorengo bi hamarkadetan Ameriketako Estatu Batuak mundu hondatu baten zatietatik nazioarteko orden berria eraikitzeko buru jarri zena. Europa berrindartu eta Japonia berriztatu zuten; komunismoa Grezian, Turkian, Berlinen eta Korean zabaltzea ekidin zuten, lehen bake hitzarmenak sinatu zituzten eta garapen bidean zeuden herrialdeentzat laguntza teknikoko programa bat jarri zuten martxan. Ameriketako Estatu Batuen babespean zeuden herrialdeek bakea, aberastasuna eta egonkortasuna zuten.

Indotxinan, berriz, Ipar Amerikak atzerrian parte hartzeko zituen asmo guztiak bertan behera geratu ziren. XX. mendeko Ameriketako Estatu Batuen nazioarteko esperientzian lehen aldiz nazio honek bere balore eta lorpenen arten zuen harreman zuzena, ia halabeharrezkoa, hausten hasi zen. Balore hauek hain modu unibertsalean aplikatzeak iparamerikarrak balore hauek zalantzan jarri eta, esate baterako, Vietnamera zergatik joan behar izan ziren galdetzea ekarri zuen.

Henry Kissinger. Diplomazia

Erantzuna:

Japoniarrek Indotxinako kolonia frantsesa okupatu zuten I. Mundu Gerran. Gerra ostean japoniarrak alde egin zutenean Vietnam iparraldean mugimendu nazionalista independentista batek irabazi eta honen buruak, Ho Chi Minh-ek, ideologia komunistadunak, Vietnamgo Errepublika Demokratikoa aldarrikatu zuen. Frantzia bere kolonia ohiaren kontrola berreskuratzen saiatuko da indarrarekin baina Dien-Bien-Fu (1954ko maiatzean) izeneko gatazkan galtzen aterako da. Ginebrako akordioak direla eta, gerra amaiera aldarrikatu eta Frantziak Indotxinatik erabat alde egitea onartzen du. Laos eta Kanboia sortuko dira estatu independente gisa. Vietnam 17 paraleloak zatituko du: iparraldean Errepublika Demokratikoa (komunista) sortuko da eta hegoaldean Saigon hiriburu gisa duen mendebaldearen aldeko estatu bat. Frantziak ez zuen Vietnamez ezer jakin nahi eta Ho Chi Minhek bere armada hegoaldea konkistatzeko bidaliko zuela iragarri zuenean Ameriketako Estatu Batuek Vietnam hegoaldeko ardura militarra hartu zuten. Ipar amerikarrek ezin zezaketen utzi komunismoa inguru hartan zabaltzeko eta Tailandia edo Filipinetan zituen interesak kaltetu zitzala.

1960an hegoaldean Vietcong (Hegoaldeko Liberazio Frontea) sortuko da. Ideologia komunistak zuen gerrillari mugimendu hau Ipar Vietnamekin batera AEBek hainbat militar eta armadekin laguntzen duten Hego Vietnamgo erregimena zapaltzen saiatuko da. Honela, gerra luze bat hasten da, izan ere, krudeltasunak eta basakeriak gerra hau historia garaikideko gerrarik gogorrenetarikoa batean bihurtuko dute. Jonson presidentearen agindupean, Ameriketako Estatu Batuek lurralde honetan 500.000 soldadu baino gehiago izango dituzte. Txina komunistak eta, bereziki, SESBk materiala eta aholkulari militarrek bidaliko dituzte. Gerra Laos eta Kanboiara zabalduko da. Azkenik, Ameriketako Estatu



Batuek ezingo dute ezer egin etsaiaren aurrean, pertsona asko hilda eta galera material handiak izango dituzte eta nazioko nahiz nazioarteko iritzi publikoaren presio handia dela eta, Nixon presidentea buru dutela, bake elkarrizketak hasia erabakitzen dute 1968an. Bakea 1973an sinatuko da Pariseko Ituna izenekoaren bitartez. Ameriketako Estatu Batuek Saigongo gobernuak bakarrik utzi eta hau berehala eroriko da. Herrialde guztia batu eta sobietarren aldeko erregimen komunista ezarri zen: Vietnamgo Errepublikak Demokratikoa.

15. Testuan azaltzen den informazioa irakurri eta azaldu labur-labur Japoniak II. Mundu Gerra ondoren izandako bilakaera ekonomikoaren arrazoiak.

Mirari japoniarra?

“Japonia gaur egun altzairua ekoizten duen munduko hirugarren herrialdea da Ameriketako Estatu Batuen eta Sobietar Batasunaren atzetik. Bere ontzioletan eraikitzen den tona kopurua munduko ekoizpenaren %40 da eta bertako tailerretan une hauetan 300.000 tonatako barkuak dauzka eraikitzen. Kontua da hau guztia hogeitaz urte eskaseta lortu dutela, Japonia guztiz zapalduta utzi zuen porrotaren ondoren ... Zein da arrakasta garbi honen arrazoiak? Lehenik eta behin, atzerriko berrikuntzak hartzeko gaitasun harrigarria dute. Izan ere, guztia behatzeko berezko zentzua dute eta edozertan jartzen dute arreta, baita huskeria txikienean ere, ez baitute ikasteko mugarik, perfektzioa lortu eta euren bizilagunak gaitzitzeko, onena hartu eta are hobea egiteko, honela, japoniarrak ezin lehiakorragoa dira nazioarteko merkatuan. Guztirako prest egote honi tresnarik onena gehitu behar zaio: etekin guztia ateratzeko prest dagoen laneskua. Honetaz gain, Japoniaren arrakastaren arrazoiak betidanik urritasunean bizi izana eta ohitura zorrotzak izatean oinarritzen dira. Honela azaltzen da, izan ere, euren lehiakortasuna oro har onartua bada ere, guztiek hain soldata baxuak onartzea. Zer axola du biziraupena, etxea eta jantzekoa baldin badituzte!... Azkenik, talde zentzuak eta aspaldiko ohiturei jarraiki nagusiarekiko mendekotasunak ere “mirari japoniarra” azaltzen dute.

J. ROBERT, Impressions japonaises, revista Education et gestion, 8. zbkia. 1967.

Erantzuna:

Japoniak izandako hazkunde izugarria ikerketari emandako laguntza publiko eta pribatu indartsuan oinarritzen da, honek azaltzen du zergatik betetzen duen informatikaren industrian punta-puntako postua. Beste faktore eraginkor batzuk sindikatuen moderazioa izan zen (atxikipen maila bloke sozialistako sindikalismo ofizialaren mailak gaitzitzen zituen), prestakuntza altuko laneko ugaria, barne kontsumo baxua eta, ondorioz, kapital pilaketa handiek eta inbertsio garrantzitsuek etengabeko berrikuntza teknikoa ekarri zuten. Gainera, egonkortasun politiko handia zegoen: Alderdi Demokrata Liberalak agindu zuen etenik gabe, industria taldeei oso lotuta zegoen alderdia eta 1929tik 1989arte agindu zuen, Hiro Hito enperadorearen agindupean.

Hauek izan dira mirari japoniarraren arrazoi nagusiak: jaiotze tasa altua dela eta demografia haztea eta hazkunde hau da, hain zuzen ere, ekonomia japoniarraren oinarria; inbertsio tasa altuak eta oso errentagarriak; enpresen tamaina handia eta hain espazio fisiko txikian hainbeste industria kontzentratzea; teknologia oso azkar hartzea eta Estatua-industriaren arteko harreman estua.

1950 eta 1966. urteen artean Japoniak hamar aldiz biderkatu zuen bere BPG eta urteko %17,5ko hazkundeak lortu zuen, munduko herrialde bakar batek ere inoiz bizitu ez duen hazkundeak. Esportazioak berreskuratu egin ziren eta inbertsio industrialak %700 igo zen urte hauetan.

1961-1970 garaian aurrera pauso bat eman zen. Inbertsio pribatuaren balioa hirukoiztu egin zen eta produkzio industrialarena bikoiztu. Gainera, produkzioa dibertsifikatu egin zen eta



Japonia autoen, etxetresna elektrikoaren eta produktu elektronikoaren ekoizle nagusien bihurtu zen.

16. Irakurri 1948ko “Gizakiaren eta Hiritarren Eskubideen Adierazpena” eta 1948ko “Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala”. Konpara itzazu. Zein ezberdintasun daude? Zein eskubide berri azaltzen dira 1948ko adierazpenan?

1. TESTUA

Antzinako Erregimenaren amaieran: Gizakiaren eta Hiritarren Eskubideen Adierazpena (1789ko abuztuaren 26a) **(Pasarteak)**

Documents d'Histoire vivante. Dossier V, 5.fitxa

I. Gizonak askea keta berdina jaiotzen dira eta irauten dute eskubideetan. Bereizketa sozialak bakarrik onura komunean oinarritu daitezke.

II. Elkarte politiko ororen helburua gizonaren eskubide naturala keta preskribituezinak gordetzea da. Eskubide hauek askatasuna, segurtasuna, jabetza eta zapalkuntzaren urreko erresistentzia dira.

III. Subiranotasun ororen iturburua esentzialki nazioan datza. Inongo taldek edo norbanakok ezin dezake erabili nazioagandik berariaz sortzen ez den agintea.

IV. Askatasuna besteei kalterik egingo ez dien edozer egin ahal izatean datza. Horrela, gizonaren eskubide naturalen erabilerak ez du beste mugarik gizarteko beste kideei eskubide berrietaz gozatzeko ziurtatzen diena baino. Muga horiek soilik lege bidez zehaztu daitezke.

VI. Legea borondate orokorraren adierazpena da. Herritar guztiek dute legearen osaketan parte hartzeko eskubidea, pertsonalki edo beren ordezkarien bidez. Legeak bat bera izan behar du guztientzat, bai babesten duenean eta bai zigortzen duenean. Legearen aurrean herritar guztiak berdina izanik, maila postu eta enplegu publiko guztietan era berean onargarriak dira, bakoitzaren gaitasunaren arabera, eta bere dohain eta trebezia gain beste bereizketarik gabe.

VII. Gizonik ezin daiteke salatu, atxilotu edo atzeman, ez bada legeak erabakitako kasuetan eta honek preskribitutako moduetan. Agindu bidegabeak (arbitrarioak) eskatu, luzatu, bete edo betearazten dituztenak zigortuak izan behar dute, baina legearen arabera deitutako edo atxilotutako herritar orok berehala obeditu behar du: erresistentzia agertzeak errudun bilakatzen du.

IX. Gizon oro, errudun jotzen ez den bitartean, errugabetzat hartu behar da; eta ezinbestekotzat jotzen bada atxilotzea, bere atxilotzea ziurtatzeko beharrezkoa ez den gogortasun oro legeak zorrozki zigortu behar du.

X. Inor ez da xaxatu behar bere iritziegatik, erlijiosoak badira ere, nolaz eta iritzi horien agerpenak legeak ezarritako ordena publikoa nahasten ez duen.

XI. Pentsamenduen eta iritzien komunikazio askea gizonaren eskubide preziatuenetakoa da. Ondorioz, herritar orok libreki hitz egin, idatzi eta argitara dezake; askatasun honekin egin ditzakeen gehiegikerien arduradun izanik legeak araututako kasuetan.

XV. Gizarteak eskubidea du agente publiko orori bere administrazioaren berri eskatzeko.

XVI. Eskubideen bermea ziurtatuta eta botereen banaketa erabakita ez duen gizarteak ez du konstituziorik.

XVII. Jabegoa eskubide ezin bortxatuzko eta sakratua izanik, inori ezin dakioke kendu, behar publikoak, legalki egiaztatuta, nabarmenki eskatzen ez badu behintzat, eta kalteordain justu eta alde aurreko baten baldintzapean.

(Iturria: “Historia Universal Labor”.

8. liburukia: “textos y documentos de Historia Moderna y Contemporánea”)



2. TESTUA



derechos humanos para todos
50 ANIVERSARIO DE LA DECLARACIÓN UNIVERSAL DE LOS DERECHOS HUMANOS
1948-1998

Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala

1948ko abenduaren 10ean Nazio Batuen Biltzar Orokorak Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala onartu eta aldarrikatu zuen. Gertakari historiko honen ondoren, Biltzarrak Nazio Batuen kide diren herrialdeei Adierazpenaren testua publikatu zezatela eta "eskola eta bestelako ikastetxeetan banatu, kaleratu, irakurri eta komentatu zezatela, herrialde edo lurraldeen egoera politikoa dena delako dela ere" eskatu zien.

Hitzaurrea

Kontuan izanik munduko askatasuna, justizia eta bakea giza familiako kide guztien berezko duintasunean eta eskubide berdin eta ukaezinetan oinarritzen direla;

Kontuan izanik giza eskubideak ez ezagutzearen eta gutxienesten ondorioz, giza kontzientziari irain egiten dioten basakeriak gertatu izan direla; eta gizon-emakumeek, beldur eta gabezia ororen aske, hitz egiteko askatasuna eta sinesmen-askatasuna izango dituzten munduaren etorrera aldarrikatu dela gizakiaren helburu nagusi;

Kontuan izanik ezinbestekoa dela giza eskubideak zuzenbidezko erregimen batek babestea, gizakia tirania eta zapalkuntzaren aurkako azken irtenbidea den matxinadara jo beharrean aurkitu ez dadin;

Kontuan izanik ezinbestekoa dela, baita ere, herrialdeen artean harreman lagunkoiak bultzatzea;

Kontuan izanik Nazio Batuetako kide diren herriek gizakiaren oinarritzko eskubideetan, gizakiaren duintasun eta balioan eta gizonen eta emakumeen eskubideen arteko berdintasunean duten fedea tinko azaldu dutela Agirian; eta, askatasunaren ikuspegi zabalago baten barruan, gizarte aurrerakuntza sustatzeko eta bizitza-maila jasotzeko erabakita daudela adierazi dutela;

Kontuan izanik Estatu Kideek, Nazio Batuen Erakundearekin elkarlanean, gizakiaren oinarritzko eskubide eta askatasunen begirune orokorra eta eraginkorra ziurtatzeko hitza eman dutela;

Kontuan izanik emandako hitz hori osotasunean betetzeko garrantzi handikoa dela eskubide eta askatasun horiek berdin ulertzea;

BATZAR NAGUSIAK GIZA ESKUBIDEEN ALDARRIKAPEN UNIBERTSAL HAU EGITEN DU



Herri eta nazio guztiek izan beharreko jomuga legez, bai norbanakoek eta bai erakundeek. Aldarrikapen honetan etengabe oinarrituta, alde batetik, eskubide eta askatasun hauen begirunea bultza dezaten irakaskuntzaren eta hezkuntzaren bidez eta, bestetik, nazio mailan eta nazioarte mailan arian-arian neurriak hartuz, era eraginkorrean eta orokorrean ezar daitezzen ziurtatzeko, bai elkarkide diren estatuetakoa herrien artean eta baita horien eskumenpean dauden lurraldeetan ere.

1. artikulua

Gizon-emakume guztiak aske jaiotzen dira, duintasun eta eskubide berberak dituztela; eta ezaguera eta kontzientzia dutenez gero, elkarren artean senide legez jokatu beharra dute.

2. artikulua

1. Gizaki orori dagozkio Aldarrikapen honetan adierazitako eskubide eta askatasunak, eta ez da inor bereziko arraza, larru-kolorea, sexua, hizkuntza, erlijioa, politikako edo bestelako iritzia, sorteria edo gizarteko jatorria, ekonomi maila, jaiotza edo beste inolako gorabeheragatik.

2. Ez zaio begiratuko gainera, pertsona zein herrialde edo lurraldetakoa den; ezta hango politikari, legeei edo nazioarteko egoerari, nahiz eta herri hori burujabea izan, besteren zainpeko lurraldea, autonomiarik gabea edo nola-halako burujabetasun-mugak dituen.

3. artikulua

Norbanako guztiek dute bizitzeko, aske izateko eta segurtasunerako eskubidea.

4. artikulua

Inor ez da izango besteren esklabo edo uztarpeko; debekatuta dago esklabutza eta esklaboen salerosketa oro.

5. artikulua

Ezin daiteke inor torturatu, ezta inori zigor edo tratu txar, anker eta lotsarazlerik eman ere.

(Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren pasartea)

Erantzuna:

1789ko Adierazpena (Sieyes eta Mirabeauk idatzia eta Nazio-Biltzarrak onartua Iraultza Frantsesaren garaian) burgesen pentsaera liberalaren isla da. Burgesia honek askatasuna, pertsonen arteko berdintasuna, nazioaren subiranotasuna, boterearen banaketa etab. eskatzen zituen.

1948ko Adierazpena nazioarteko batzorde batek idatzi zuen eta gizakiaren askatasun eta eskubideen onarpen zabalena da. Deklarazio honek eskubide zibilak, politikoak, ekonomikoak eta sozialak aipatzen ditu. Hainbatetan eztabaidatu ondoren, nazioarteko hitzarmen baten bitartez 1966an sartu zen indarrean.

Bi dokumentuen artean ikus daitezkeen ezberdintasun batzuk hauek dira:

- 1948ko Adierazpenan giza eskubideak zuzenbideko erregimen batek babestuko dituela dio.
- Pertsonen eskubideei buruzko 2. artikuluan honako hau gehitzen da: "ez da inor bereziko arraza, larru-kolorea, sexua, hizkuntza, erlijioa, politikako iritzia, ekonomi maila,..."
- 5. artikuluan ere "Ezin daiteke inor torturatu, ezta inori zigor edo tratu txar, anker eta lotsarazlerik eman ere" aipatzen da



17. Osatu Europar Batasuna sortzeko eman den atxikipen prozesuari buruzko koadro hau.

URTEA	ATXIKITUTAKO HERRIADEAK	GERTAKARIA	GARRANTZIA
1951	Benelux, Frantzia, Italia eta Alemaniako Errepublika Federala.	PARISEKO ITUNA	
1957			EEE sortzen da (Europako Ekonomia Erkidegoa)
1973			
	Grezia		
1986			
		EUROPAKO AGIRI BAKUNA	
1990	Alemanien bateratzea (Alemaniako Errepublika sartzen da) antzinako Demokratikoa		
			EE EB bihurtuko da (Europar Batasuna). Kohesio Fondoak sortzen dira. Batasun ekonomikorako eta Diru-Batasunerako egutegia.
1995			
		AMSTERDAMGO ITUNA	
2000			Instituzio komunen aginte banaketa berria herrialde berrien atxikimendua prestatzeko.
			EBko partaide diren herrialde gehienetan moneta komuna erabiltzen da (guztietan Erresuma Batuan, Danimarkan eta Suedian izan ezik)
2004			
2007	Errumaniaren eta Bulgariaren atxikipena aurreikusten da.		



Erantzuna:

URTEA	ATXIKITUTAKO HERRIELDEAK	GERTAKARIA	GARRANTZIA
1951	<i>Benelux, Frantzia, Italia eta Alemaniako Errepublika Federala.</i>	PARISEKO ITUNA	IAEE sortu zen (Ikatzairen eta Altzairuaren Europako Erkidegoa)
1957	Belgika, Holanda, Luxenburgo, Frantzia, Italia eta Alemaniako Errepublika Federala.	ERROMAKO ITUNA	EEE sortu zen (Europako Ekonomia Erkidegoa) eta EURATOM (Atomo Energiaren Europako Erkidegoa)
1973	<i>Erresuma Batua, Irlanda eta Danimarka.</i>		
1981	<i>Grezia</i>		
1986	<i>Espainia eta Portugal.</i>		
1987		EUROPAKO AGIRI BAKUNA	Europako merkatu bakarra diseinatzea. Europar Parlamentua sufragio unibertsalez hautatzea. EEE ordeztu EB izendatzea (Europar Batasuna)
1990	Alemanien bateratzea (Alemaniako antzinako Errepublika Demokratikoa sartzen da)		
1992		MAASTRICHT-EKO ITUNA	EE EB bihurtuko da (Europar Batasuna). Kohesio Fondoak sortzen dira. Batasun ekonomikorako eta Diru-Batasunerako egutegia.
1995	<i>Austria, Suedia y Finlandia</i>		
1997		AMSTERDAMGO ITUNA	Oinarrizko eskubideen eta pertsonen zirkulazio libreak buruzko akordioa.
2000		NIZAKO ITUNA	Instituzio komunak agintea banaketa berria herrialde berrien atxikimendua prestatzeko.
2002		EUROA erabiltzen	EBko partaidea



		hasten dira	diren herrialde gehienetan moneta komuna erabiltzen da (guztietan Erresuma Batuan, Danimarkan eta Suedian izan ezik)
2004	Estonia, Letonia, Lituania, Polonia, Hungaria, Eslovakia, Txekiar Errepublikak, Eslovenia, Malta eta Txipre.		
2007	Errumaniaren eta Bulgariaren atxikipena aurreikusten da.		


18. Kokatu mapan Europar Batasuna osatzen duten herrialdeak eta kolorezta itzazu atxikipen dataren arabera.

- ☐ *Erromako Ituna (1957)*
- ☐ *1973ko atxikimendua (Bederatzien Europa)*
- ☐ *1981ko atxikimendua (Hamarren Europa)*
- ☐ *1986ko atxikimendua (Hamabien Europa)*
- ☐ *Alemanien bateratzea (1990)*
- ☐ *1995ko atxikimendua (Hamabosten Europa)*
- ☐ *2004ko atxikimendua (Hogeita bosten Europa)*
- ☐ *2007rako aurreikusten dena*
- ☐ *Atxikimendurako aurreikuspenik gabe*





Erantzuna:



1. koadrotxoa: Erromako Ituna sinatu zutenak (1957)
2. koadrotxoa: Bederatzien Europa (1973)
3. koadrotxoa: Hamarren Europa (1981)
4. koadrotxoa: Hamabien Europa (1986)
5. Koadrotxoa: Alemaniaren bateratzea (1990)
6. Koadrotxoa: Hamabosten Europa (1995)
7. Koadrotxoa: EBra sartzea eskatu duten herrialdeak

- 1.- Herbehereak
2.- Belgika
3.- Luxemburgo
4.- Txekiar Errepublikak
5.- Eslovakia
6.- Austria
7.- Eslovenia

- 2004ko atxikimenduak (Hogeita bosten Europa): **Estonia, Letonia, Lituania, Polonia, Hungaria, Txekiar Errepublikak, Eslovakia, Eslovenia, Malta, Txipre.**
- 2007rako aurreikusten diren atxikimenduak: **Errumania, Bulgaria.**
- Atxikimendurako aurreikuspen datarik gabe: **Turkia.**



19. Irakurri testu hau eta erantzun egiten zaizkizun galderei.

EUROPAR BATASUNEAN ERABAKIAK HARTZEA

Europar Batasunean erabakiak hainbaten artean hartzen dira, "instituzioen triangeluak" hartzen baititu. Triangelu hau Europako Parlamentuak, Europar Batasuneko Kontseiluak eta Europako Batzordeak osatzen dute. Kontu-Auzitegia, Ekonomia eta Gizarte Lantaldea, Eskualdeetako Lantaldea, Europako Banku Zentrala(...) erakunde edo organoak dira eta hauek ere hainbat eremu espezifikotan hartzen dute parte.

Erabakiak hartzeko prozesuaren arauak itunetan zehaztuta daude eta Europar Batasunak jardun behar duen eremu guztiak hartzen dituzte. Oraingo honetan prozedura legegilea soilik ikusiko dugu eta alde batera utziko ditugu bi prozedura ezberdin: aurrekontua onartzearena eta nazioarteko akordioak lortzearena, hain zuzen ere.

Nahiz eta zenbait eremu, batez ere Ekonomia eta Moneta Batasunak, bereziagoak diren, erabakiak hartzeko hiru prozedura nagusi ezberdin daitezke. Prozedura hauek, kasuan kasu, erabakiak hartzea arautzen dute maila legegilean. Hauek dira:

- ∞ **Elkarrekin erabakitzeko prozedura.** Elkarrekin erabakitzeko prozedura Europar Batasuneko Itunak barneratu zuen (Maastricht-eko Ituna, 1992) eta Europako Erkidegoa Eratzeko Ituneko 251. artikulua arautzen du. Amsterdamgo Itunarekin batera (1997) bere aplikazio eremua sinplifikatu eta zabaltu zen. Prozedura honen arabera Batzordeak egindako proposamenaren bi irakurketa egin behar dituzte Parlamentuak eta Kontseiluak, bata bestearen ondoren eta bi erakunde legegile hauen artean ezadostasunak badaude, "Adiskidetzeko Lantalde" bat sortzera deituko litzateke. Lantalde hau Kontseiluko eta Parlamentuko ordezkariak osatuko lukete eta Batzordeak ere lagunduko luke akordio bat lortzeko helburuarekin. Akordio hau Parlamentuari eta Kontseiluari aurkeztuko zaio hirugarren irakurketa baterako eta, honela, onartzeko.
- ∞ **Aldeko irizpeneko prozedura.** Aldeko irizpeneko prozedura Europako Agiri Bakunarekin batera sortu zen (1986). Kontseiluak Europako Parlamentuaren onarpena jaso behar du garrantzia handiko erabaki jakin batzuk hartzeko. Europako Parlamentuak proposamen bat onartu edo atzera bota dezake baina ezin dezake zuzenketarik egin.

- ∞ **Aholku prozedura.** Aholku prozedurarekin Europako Parlamentuaren ebazpena eskatzen da. Ebazpena ematen duenean, Batzordeak proposamena zuzentzeko gaitasuna du. Ondoren, Kontseiluak proposamena aztertu eta bere horretan onartu edo zuzendu ondoren onar dezake. Hala ere, Kontseiluak Batzordearen proposamena bertan behera utzi nahi badu, aho batez erabakitakoa izan behar du.

Iturria:
<http://www.europa.eu.int>
(Material didaktikoak. Anaya-Haritz)



Azaldu zein den EBko erabakiak hartzeko prozesua:

1. Zein erakundek hartzen dute parte? Zer da “erakundeen triangelua”?
2. Zein dira EBan maila legegilean erabakiak hartzeko erabiltzen diren hiru prozedura nagusiak?. Azal itzazu.
3. Zein funtzio betetzen du “Adiskidetzeko Lantaldeak?”. Nork osatzen du lantalde hau?
4. Testuan aipatzen diren EBko zein beste erakundek har ditzake erabakiak “erakundeen triangelua” osatzen duten erakundeez gain?

Erantzuna:

1. Zein erakundek hartzen dute parte? Zer da “erakundeen triangelua”?

EBren [erabakiak hartzeko prozesuan](#) orokorrean eta [elkarrekin erabakitzeko prozeduran](#) bereziki hiru erakunde nagusik hartzen dute parte:

- [Europako Parlamentua](#). Honek EBko hiritarrak ordezkatzeko dituen eta hiritarrek eurek aukeratzeko dute zuzenean;
- [Europar Batasuneko Kontseilua](#). Honek Batasuna osatzen duten estatuak ordezkatzeko dituen;
- [Europako Batzordea](#). Honek Batasunaren interesak defendatzeko dituen orokorrean.

“Erakundeen triangelua” honek EBean aplikatzen diren politikak eta legeak (direktibak, araudiak eta erabakiak) erabakitzen ditu. Hasiera batean Batzordeak proposatzen ditu Batasuneko lege berriak baina Parlamentuak eta Kontseiluak onartzen dituzte.

2. Zein dira EBean maila legegilean erabakiak hartzeko erabiltzen diren hiru prozedura nagusiak?

- [Elkarrekin erabakitzeko prozedura](#). Honekin Europako Batzordeak egindako proposamen baten bi irakurketa egiten dira Parlamentuan eta Kontseiluan. Proposamena bi erakundeek onartu behar dute.
- [Aldeko irizpeneko prozedura](#). Honekin EBko Kontseiluak Europako Parlamentuaren onarpena izan behar du garrantzia handiko erabaki jakin batzuk hartzeko.
- [Aholku prozedura](#). Erabaki jakin bat hartu aurretik Europako Batzordeak Europako Parlamentuaren ebazpena eskatzen du. Ebazpen hau izanik, Batzordeak bere lehen proposamena zuzentzeko gaitasuna du. Ondoren EBko Kontseilura bidaliko du honek onar dezan eta honek aho batez bakarrik zuzendu ahalko du.

3. Zein funtzio betetzen du “Adiskidetzeko Lantaldeak?”. Nork osatzen du lantalde hau?

Batzordeak proposamen bat egin eta [elkarrekin erabakitzeko prozeduran](#) Parlamentuaren eta Kontseiluaren artean desadostasun bat baldin badago, “Adiskidetzeko Lantaldea” biltzen da. Lantalde hau Parlamentuaren eta Kontseiluaren ordezkariak osatzen dute eta Batzordeak laguntzen du honela akordio batetara iristeko.

4. Testuan aipatzen diren EBko zein beste erakundek har ditzake erabakiak “erakundeen triangelua” osatzen duten erakundeez gain?

Parlamentuaz, Kontseiluaz eta Europako Batzordeaz gain, badaude erabakiak hartzeko prozeduretan parte har dezaketen eremu espezifikoetako erakundeak, hauen artean honako hauek:

- [Kontu-auzitegia](#): Batasuneko jardueren finantzaketa kontrolatzen du.
- [Ekonomia eta Gizarte Lantaldea](#): giza erakundeak eta industria ordezkatzeko dituen.
- [Eskualdeetako Lantaldea](#): eskualdeetako eta tokiko agintariak ordezkatzeko dituen.
- [Europako Banku Zentrala](#): Europako moneta politikaz arduratzen da.



20. Trantsizio demografikoari buruzko testua irakurri ondoren (A dokumentua), aztertu eta komentatu hazkunde demografikoaren aldien adierazpen grafikoa (B dokumentua). Kontuan eduki jaiotze eta heriotza tasek zein bilakaera izan duten denboran zehar eta zeintzuk diren bilakaera hori eragin duten faktoreak.

1. Zer da trantsizio demografikoa?
2. Bete ondorengo koadroa:

GARAIA	KRONOLOGIA	JAIOTZE TASA	HERIOTZA TASA	HAZKUNDE NATURALA
<i>Aurreindustrial</i>				
<i>Trantsizioa (a fasea)</i>				
<i>Trantsizioa (b fasea)</i>				
<i>Geldialdia</i>				

3. Esan zein faktorek eragiten duten jaiotza eta heriotza tasetan garai bakoitzean.
4. Informa zaitez eta erantzun:
Trantsizio demografikoko zein garaitan aurkitzen dira zehazki herrialde garatuak? Eta azpigaratuak? Zer da **leherketa demografikoa**? Noiz hasi zen eta zein herrialderi eragin zion?



A DOKUMENTUA: TESTUA: Trantsizio demografikoaren garaiak

“Orokorrean hiru edo lau maila ezberdin daude trantsizio demografikoan baina autoreek izen ezberdinak ematen dizkiete. Guk hemen honako izan hauek emango dizkiegu: (1) aurreindustrialia, (2) trantsizioa eta (3) geldialdia. Aldi hauetako lehena, hots, aurreindustrializazioa, mendebaldeko zientzia eta teknologiaren eraginik izan ez zuten kultura tradizionalei dagokie. Iraultza Industrial aurreko kulturak hartzen ditu, baita mendebaldeko eragin handiegirik jasotzen ez duten kultura garaikideak ere. Garai hau kultura guztietan izan zen nagusi giza historian milurtetan zehar, azken bi-hiru mendeetan izan ezik.

Jaiotza tasak altuak izan ohi ziren, bizimodu txarra, haur asko hiltzen ziren, bizi-itxaropena ez zen 35 urte baino altuagoa eta heriotza tasak altuak eta gorabeheratsuak ziren. Heriotza eta ugalkortasun tasen artean nolabaiteko oreka zegoen eta, beraz, hazkunde naturala geldoa zen. Dena den, hazkunde potentziala altua zen. Orain hamarkada bat edo bi arte Afrika beltza zen, Sahara hegoaldean kokatutako lurraldea, trantsizio demografikoko lehen mailan zirauen azken hondarra. Baina orain dela gutxi orokorrean mendebaldeko medikuntza eta osasun zerbitzuak sartu direnez, hainbat tokitan heriotza tasa jaitsi egin da eta lurralde honek trantsizio izaera hartu eta bertako biztanleria gehiago da 2. mailakoa 1. mailakoa baino. Esan beharra dago, estatu afrikar hauetako askoren heriotza tasa fidagarriak ez badira ere, hurbilketek adierazten dutenaren arabera, herrialde hauetariko gehiengoak 1.000tik 30 baino gutxiagoko hilkortasun tasa gordinak dituztela.

Bigarren mailaren, hots, trantsizioaren ezaugarriak nagusiena jaiotzen eta heriotzen arteko desoreka da. Heriotzen jaitsiera jaiotzen jaitsiera baino lehenago eta azkarrago gertatzen da, ondorioz, hazkunde natural handia gertatzen da. Maila hau gosea eta gaixotasunak pixkanaka gutxitu egiten direlako eta askotan osasuna eta bizitza maila hobetzen direlako gertatzen da. Hilkortasun tasak berehala jaisten dira eta jaiotza tasa altuak izaten dira denbora batean: bi tasak elkar urruntzen dira (a fasea). Tarteko maila honetan ugalkortasuna kontrolatzeak jaiotza tasak murriztuko ditu aurrerago (b fasea). Honela, hilkortasun jaitsiera gutxitu egingo da hein batean. Bi tasak ia bat datozenek, hazkunde naturala atzeratzen da.


Hirugarren mailan, hots, geldialdian, bai ugalkortasuna bai hilkortasuna kontrolpean daude. Oro har esateko, gurasoek nahi dituztelako izaten dituzte haurrak. Heriotza tasak baxuak dira eta jaiotza tasak baxuak edo erdibidekoak. Maila hau lehenengoaren antzekoa izango da heriotzen eta jaiotzen artean oreka arrazoizko bat lortzen denean baina hazkunde naturala ez da gehiegizkoa, 2. mailan izango den bezala. Baina 1. eta 3. mailak hazkunde natural baxu edo erdibidekoa badute ere, 1. mailan hazkunde potentziala altua da eta 3. mailan baxua.”

Trewartha, G.: Biztanleriaren geografia.



B DOKUMENTUA:

GRAFIKOAK: *Trantsizio demografikoaren garaiak*



Anaya-Haritz Editoriala



Erantzuna:

1. *Trantsizio demografikoaren teoriak erregimen demografiko tradizional batetik, jaiotze eta heriotza tasa altuak dituen horretatik, modernora, jaiotza eta heriotza tasa altuak dituen horretara pasatzeko trantsizio prozesua azaltzen du.*
2. *Garaiak:*

GARAIA	KRONOLOGIA	JAIOTZA TASA	HERIOTZA TASA	HAZKUNDE NATURALA
Aurreindustrial	<i>Prehistoriatik XVIII. mende arte</i>	<i>Altua</i>	<i>Altua</i>	<i>Geldoa</i>
Trantsizioa (a fasea)	<i>XVIII. mendetik XIX. mende hasiera arte</i>	<i>Altua</i>	<i>Beherakorra</i>	<i>Azkarra</i>
Trantsizioa (b fasea)	<i>XIX. mende hasieratik 1950. urte arte</i>	<i>Beherakorra</i>	<i>Baxua</i>	<i>Azkarra</i>
Geldialdia	<i>1950. urtetik gaur egun arte</i>	<i>Baxua</i>	<i>Baxua</i>	<i>Geldoa edo atzeranzkoa</i>

3. *Jaiotza eta heriotza tasak:*
 - a) **Garai aurreindustrial: Ugalkortasun tasa natural altuak** (mugarik gabe) eta **heriotza tasa altuak** daude bizi baldintza txarrak, baldintza mediko eta sanitario ezin okerragoak eta ezbehar, gerra, izurrite eta abar asko zeudelako. Jaiotza eta heriotza tasa altuak zeudenez, **hazkunde naturala baxua** zen.
 - b) **Trantsizioa (a fasea): XVIII. mende erdia eta 1950. urte artean Europako biztanleria zabalkunde garai batean sartu zen eta garai honen ezaugarriak garrantzitsuena** hilkortasunaren jaitsiera nabaria izan zen. **Hau bizi zuten herrialdeek hazkunde natural handia bizitu zuten. Orokorrean eta haurrengan hilkortasuna jaitea arrazoi askogatik gertatu zen: nekazaritzaren eta industriaren garapena, elikadura hobea, aurrerapenak medikuntzan eta lehenengo higieen neurri orokorrak (estolderiak, ur korrantea...)**
 - c) **Trantsizioa (b fasea): Jaiotzen eta ugalkortasunaren jaitsiera beranduago gertatu zen orokorrean: XIX. mendeko azken laurdenean hasiko da eta Europara XX. mende hasieran zabalduko da. Honen arrazoi nagusia jaiotzak nahita mugatzea da. Jaiotzen eta heriotzen jaitsierak garai ezberdinetan izan zirenez, hazkunde natural handia sortu zen eta, beraz, Europako biztanleria asko hazi zen.**
 - d) **Geldialdia: Bai ugalkortasuna bai hilkortasuna kontrolpean daude.** Jaiotzen eta heriotzen artean oreka bat emango da eta, ondorioz, hazkunde naturala geldoa izango da.
4. **Informa zaitez eta erantzun:**
 - a) **Trantsizio demografikoa burutu ondoren, herrialde garatuak erregimen demografiko moderno delakoan daude, honela, jaiotza eta heriotza gutxiago dituzte eta hazkunde natural ahula edo atzeranzkoa. Herrialde azpigaratuak, berriz, orain lortzen dute hazkunderik altuena. Ipar Amerikan, Europan, SESB ohian, Australian eta Zeelanda Berrian trantsizio demografikoa aspaldi burutu bada ere, munduan zehar oraindik hainbat herrialde honen garai ezberdinetan daude.**
 - b) Leherketa demografikoa **hilkortasuna jaitsi eta jaiotzak altuak dirautenez, biztanleria asko handitzen denean gertatzen da. Ikusi dugun bezala, fenomeno hau mendebaldean XIX. mendean geratu zen. Horregatik, termino**



hau hainbat herrialde azpigaratuetan gaur egun (baina batez ere 1970etik 1975era) gertatu den biztanleria hazkunde handiaz hitz egiteko erabiltzen da.



Galdera bakoitzaren puntu kopuruak alda daitezke. UPV/EHUren webgunean argitaratuta dauden azterketak begiratzea gomendatzen da.

PROBARAKO ADIBIDEA

1. Irakurri testua eta erantzun honako galdera hauek: (4 puntu)

- Esan nazioarteko zein erakunderi egiten dion erreferentzia testuak (1 puntu)
- Esan labor-labor zein diren erakunde horren ezaugarri nagusiak: xedeak, bitartekoak, jarduketak-esparrua eta berorren zabalera. Ba al zen garai hartan gisa horretako erakunderik nazioarteko esparruan? (1 puntu)
- Munduko egoera politiko eta ideologikoari dagokionez, zein ezaugarri ditu testuak erreferentzia egiten dion garaiak? (1 puntu)
- Esan zein izan den bi erakundearen bilakaera XX. mendearen bigarren erdian (1 puntu)

"(...)3. artikulua. Itun honen helburuak burutzen direla ahalik eta eraginkorren bermatzeko, indibidualki eta modu bateratuan, etengabe eta eraginkortasunez jardunez, euren bitarteko propioak emateko, eta elkarri laguntza emanez, eraso armatuaren aurrean euren banakako nahiz taldeko erresistentziarako gaitasuna mantendu eta handituko dute.

4.artikulua. Aldeek kontsulta egingo diote elkarri baldin eta, euren ustez, lurraldearen osotasuna, independentzia politikoa edota aldeetako baten segurtasuna mehatxupean balego.

5. artikulua. Aldeek hitzartzen dute, European edo Ipar Amerikan eurentako baten edo gehiagoren aurkako eraso armatu bat jazotzen baldin bada, alde guztien aurkako erasotzat hartuko dela eta, ondorioz, hitzartzen dute, halako erasoren bat jazoko balitz, eurentako bakoitzak, bidezko defentsarako eskubide indibiduala nahiz taldekoa erabiliz, Nazio Batuen Kartan 51. artikuluan onartua, erasoak jaso duen alde edo aldeei lagunduko diela, eta indibidualki eta gainerako adostasunarekin, beharrezko irizten duen ekintza burutuko duela, baita indar armatuaren erabilera bada ere, Ipar Atlantikoko eskualdean segurtasuna ezartzea eta mantentzea helburu (...)"

www.historiasiglo20.org

2. Esan zein diren EEera 1973an sartu ziren herrialdeak eta adieraz itzazu mapan. (2 puntu)

(Ariketa honetan ez da beti mapa bat azalduko, grafiko bat ere ager liteke, koadro bat datuekin etab.)



3. Sei termino hauetatik hautatu hiru eta defini itzazu gehienez ere 15 lerrotan bakoitza: (3 puntu, definizio bakoitzeko 1).

(Terminoak definitzearen ariketaren ordeztu bi galdera ere jar litezke, bakoitza gai bati buruzkoa, eta ikasleak horietako bat hautatuko luke lantzeko).

- a) Gerra Hotza
- b) Marshall Plana
- c) Europako Parlamentua
- d) Nazioen Elkartea
- e) "Errepresalia masiboa" dotrina
- f) COMECON

4. Jarri orden kronologikoan eta esan zein urtetan jazo ziren honako gertakari historiko hauek: (1 puntu).

(ariketa kronologikoen ordeztu, terminoak, pertsonaiak edo egoerak dagozkien definizioarekin lotzeko ariketa bat jar liteke).

Misilen krisia Kuban
Europar Batasuneko Ituna sinatzea Maastricht-en.
Berlingo harresiaren erorketa
Weimar-ko Errepublika Alemanian
Krisia Hungarian
Ez erasotzeko itun germanio-sobietarra sinatzea



PROBARAKO ADIBIDEEN ERANTZUNAK

1. Irakurri testua eta erantzun honako galdera hauek: (4 puntu)

- Esan nazioarteko zein erakunderi egiten dion erreferentzia testuak (1 puntu)
- Esan labor-labor zein diren erakunde horren ezaugarri nagusiak: xedeak, bitartekoak, jarduketa-esparrua eta berorren zabalera. Ba al zen garai hartan gisa horretako erakunderik nazioarteko esparruan? (1 puntu)
- Munduko egoera politiko eta ideologikoa dagokionez, zein ezaugarri ditu testuak erreferentzia egiten dion garaiak? (1 puntu)
- Esan zein izan den bi erakunde bilakaera XX. mendearen bigarren erdian (1 puntu)

“(…)3. artikulua. Itun honen helburuak burutzen direla ahalik eta eraginkorren bermatzeko, indibidualki eta modu bateratuan, etengabe eta eraginkortasunez jardunez, euren bitarteko propioak emateko, eta elkarri laguntza emanez, eraso armatuaren aurrean euren banakako nahiz taldeko erresistentziarako gaitasuna mantendu eta handituko dute.

4.artikulua. Aldeek kontsulta egingo diote elkarri baldin eta, euren ustez, lurraldearen osotasuna, independentzia politikoa edota aldeetako baten segurtasuna mehatxupean balego.

5. artikulua. Aldeek hitzartzen dute, Europan edo Ipar Amerikan eurretako baten edo gehiagoren aurkako eraso armatu bat jazotzen baldin bada, alde guztien aurkako erasotzat hartuko dela eta, ondorioz, hitzartzen dute, halako erasoren bat jazoko balitz, eurretako bakoitzak, bidezko defentsarako eskubide indibiduala nahiz taldekoa erabiliz, Nazio Batuen Kartan 51. artikuluan onartua, eraso jaso duen alde edo aldeei lagunduko diela, eta indibidualki eta gainerako adostasunarekin, beharrezko irizten duen ekintza burutuko duela, baita indar armatuaren erabilera bada ere, Ipar Atlantikoko eskualdean segurtasuna ezartzea eta mantentzea helburu (...)”

www.historiasiglo20.org

Erantzuna:

- Testuak aipatzen duen erakundea NATO da (Ipar Atlantikoko Itunaren Erakundea), 1949ko apirilaren 4ean sortua Washingongo Itunaren bitartez, Ameriketako Estatu Batuen babespean.
- Xedea Europako sobietarrei aurre egitea zen, base militar estrategikoak sortuz eta arma-politika iraunkor baten bitartez. Hauek dira NATO osatzen zuten herrialdeak: Belgika, Kanada, Danimarka, Frantzia, Islandia, Italia, Luxenburgo, Holanda, Norvegia, Portugal, Erresuma Batua, Ameriketako Estatu Batuak, Grezia eta Turkia (1952), Alemaniako Errepublika Federala (1955) eta Espainia (1982). Multzo sozialistan antzeko erakunde militar bat sortu zen: Varsoviako Ituna.
- II. Mundu Gerra amaitzean aliatuak ez ziren akordio orokor batera iristeko gai izan, eta ezberdintasun horien isla gisa, mundua bi multzotan banatu zen, nola geografikoki nola ideologikoki. Batetik, mendebaldeko multzoa, Atlantikoaren eta Ameriketako Estatu Batuen inguruan bildua, ekonomia kapitalistaduna eta alderdien aniztasunaren alde eta, bestetik, ekialdeko multzoa, SESBren inguruan eta haren agindupean, komunista eta antikapitalista. Helburua Europako herri demokraziak eta mendebaldeko alderdi komunistak babestea zen.

Aurkakotasun horretatik, defentsarako erakunde militarrek sortu ziren bi alderdietan: NATO (iruzkindutako testuan aipatzen dena) eta Varsoviako Ituna.

Une horretatik aurrera munduko oreka politikoa norgehiagoka nuklear eta armamentistikoan oinarritu zen.



- d) Bi erakundeen bilakaera oso ezberdina izan da. Varsoviako Ituna desagertzera kondentatua zegoen Europako erregimen komunistak erori zirenean, 1989an Berlingo harresia erori ondoren eta SESB 1991ean gainbehera joandakoan. Bi erakundeak hertsiki lotuta zeuden ekonomia-, gizarte- nahiz ideologia-eredu batetara, beraz, eredu horietako batek porrot eginez gero, egitura politiko-militarrak ez zuen inolako zentzurik. Horrexegatik, NATO eredu ekonomiko eta ideologiko garaile atera eta, bere horretan jarraitzeaz gain, kide gehiago ere hartuko ditu, dagoeneko desagertutako Varsoviako Itunekoak, alegia.


2. Esan zein diren EEera 1973an sartu ziren herrialdeak eta adieraz itzazu mapan. (2 puntu)

(Ariketa honetan ez da beti mapa bat azalduko, grafiko bat ere ager liteke, koadro bat datuekin etab.)





Erantzuna:



1973an zabalduko da lehen aldiz EEE – Europako Ekonomia Erkidegoa, eta Erresuma Batua, Irlanda eta Danimarka atxikiko dira.

3. Sei termino hauetatik hautatu hiru eta defini itzazu gehienez ere 15 lerrotan bakoitza: (3 puntu, definizio bakoitzeko 1).

(Terminoak definitzearen ariketaren ordez bi galdera ere jar litezke, bakoitza gai bati buruzkoa, eta ikasleak horietako bat hautatuko luke lantzeko).

- a) Gerra Hotza
- b) Marshall Plana
- c) Europako Parlamentua
- d) Nazioen Elkartea
- e) “Errepresalia masiboa” dotrina
- f) COMECON

Erantzuna:

- a) **Gerra Hotza.-** Gerra Hotza terminoak bi superpotentzien arteko konfiantzarik eza, etsaitasuna, tentsioa eta mehatxuak nagusi diren egoera adierazten du. Ameriketako Estatu Batuen eta Sobietar Batasunaren artekoa izango da II. Mundu Gerra ostean. 1946. urteaz geroztik, faxismoaren kontra aliatuak izandakoen arteko mesfidantza sortu eta elkarren aurkako gerra ireki bat (“gerra beroa”) sortuko ez bada ere, mehatxu militar eta nuklearra egongo da, aurkakotasun ideologikoa, ekonomikoa egongo da, elkarren aurkako gorrotoa (“gerra hotza”). Pilatutako presioa oso handia zenean, ihesbide gisa, gerrak sortzen ziren, baina bi potentzia handien lurraldeetatik urrun: Korean, Vietnamen edo Afganistanen; gerra horietan, bai AEBek bai SESBak, bakoitzak bere aldeari lagundu eta esku hartuko du, baina zuzenean elkarren aurka egin gabe.
- b) **Marshall Plana.-** II. Mundu Gerraren ostean, 1945ean, Europako egoera ekonomikoa penagarria zen: txikizioa, ekoizpenaren jaitsiera, kanpoko zorrak, merkataritzaren



defizita geroz eta handiagoa eta baliabiderik eza bakoitzak bere biztanleria mantentzeko.

Orduan Ameriketako Estatu Batuek politika interbentzionista hasi zuten Europan, eta kontinenteko zenbait herrialderi laguntza ekonomiko handia eman zien. Uste zuten laguntza hori ematea, luzera, euren onerako izango zela, Europako ekonomia Ipar Amerikakoaren mende egingo baitzuten. Enpresa multinazional estatubatuarrek jarri zituzten, merkataritza ugaritu, mendekotasun teknologikoa etab.

Bestalde, ezin zezaketen onartu komunismoa gerrak ahuldutako Europa batetik zabal zedila, Sobietar Batasunaren boterea eta eragina ugarituko bailitzateke. Plan horren oinarri eta xedeak George Marshall jeneral ohiak, garai hartan AEBetako estatuidazkariak zehaztu zituen, Harvard Unibertsitatean emandako hitzaldi batean. Planak honako bi gidalerro hauek zituen ardatz: Europan eta Europaren kolonietan merkatu libreko ekonomiak berrezartzea, eta Europa eta AEBen arteko merkatal harremanak ez gutxitzea.

- c) **Europako Parlamentua.-** Europako Parlamentua Europar Batasuneko erakundeetako bat da eta Estrasburgon du egoitza. 626 kidek osatzen dute, bost urtez behin hautatuak kide diren herrialdeetan zuzeneko sufragio unibertsalez; munduko biltzar multinazionalik handiena da. Italia, Frantzia eta Erresuma Batuari 87 parlamentari dagozkie, Espainiari 64, Herbehereei 31, Belgika, Grezia eta Portugal 25, Suediari 22, Austriari 21, Danimarka eta Finlandiari 16, Irlandari 15 eta Luxenburgori 6. Europako Parlamentuko diputatuak parlamentu-talde ezberdinetan biltzen dira, ideologiaren arabera, jatorrizko herrialdea edozein dela ere. Beste edozein parlamenturen moduan, legeak eta aurrekontuak onartzea eta botere exekutiboaren ekintza kontrolatzea dagokio. 1987ko Agiri Bakunak, ondoren 1993ko Europar Batasuneko Itunak eta 1997ko Amsterdamekoak Parlamentuaren ardurak handitu izana eragin dute pixkanaka.
- d) **Nazioen Elkartea.-** Nazioen Elkartea Ginebran izan zuen egoitza, 1920an jarri zen abian eta Wilson presidente ipar amerikarrak egindako proposamenetatik gauzatu zen emaitzetako bat izan zen. Gatazkak modu baketsuan ebazteko balio duen nazioarteko erakundea zen, nazioarteko zuzenbidea oinarri, horrexek gidatu behar baititu estatuen arteko harremanak. Beste xede eta funtzioetako bat armamentu-ekoizpena murriztu dela kontrolatzea zen, segurtasun-sistema kolektibo bat bermatzeko neurriak eraginkorrena zenez. Hiru organo hauek gidatzen zuten: Batzar Nagusia, kide bakoitzak bozka bat zuen eta nazioarteko arazorik garrantzitsuenak eztabaidatzen ziren; kontseilua, bost kide iraunkorrek eta Batzarrak urtero hautatutako lauk osatzen zuten, eta munduko bakea mehatxatzen zuen edozein gatazka ebazteko betebeharra zuen; eta Idazkari iraunkor bat, Nazioen Elkarrearen lanak prestatzearen arduradun. Asmoak onak baziren ere, NE erakunde ahula izan zen hasiera hasieratik. Sortzaileak nazio garaileak izan ziren eta, beraz, garaiak kanporatu egin zituzten eta SESB albo batera utzi zuten. Gainera, 1920. urtean, Wilson saiatu bazen ere, AEBetako Senatuak Versaillesko Tratatuaren berrespena atzera botako du eta, beraz, baita Nazioen Elkarrearen Hitzarmena ere, Versaillesko Itunaren zati baitzen.
- e) **Errepresalia masiboa dotrina.-** 1953an Stalin hiltzen denean, SESBren eta AEBen arteko gerturatze politika bat hasiko da, nazioarteko politika lubakietatik elkarriketara pasako da, batzutan beste batzuetan baino tentsio handiagoan, unearen arabera eta gora behera askorekin, gerra hotzaren gertakari nagusiei jarraiki. 1956an errusiarrek ipar amerikarrei aurre hartu zieten armamentuen norgehiagokan, kontinente arteko lehen misilak fabrikatu zituzten eta, hurrengo urtean lehen satelite artifiziala jaurti zuten. Etsaiari kanpotik eraso egin ahal izatea errealitate egin zen. AEBen kezka nabaria izango da eta Eisenhower presidenteak "errepresalia masiboaren dotrina" idatziko du. Dotrina horren arabera, AEBen edota aliatuen aurka bideratutako edozein atake komunistak SESBren eta bere aliatuen aurkako erantzun nuklear suntsitzaile bat ekarriko luke.



- f) **COMECON.-** AEBek sustatutako Marshall Planaren aurrean Sobietar Batasunak emandako erantzuna izan zen, II. Mundu Gerra ostean haren babespean geratu zen Europa Ekialdeko ekonomia berreskuratzeko, aipatu Marshall Planaren antzekoa. Horrela, 1949an Elkarren Laguntza Ekonomikorako Kontseilua (COMECON edo ELEK) sortuko da, "Marshall Plan Sobietarra" ere deitua. Helburua herri demokrazien eta Sobietar Batasunaren arteko lankidetzaz zabala lortzea zen. Honako herri hauek ziren kide: Alemaniako Errepublika Demokratikoa, Polonia, Hungaria, Txekoslovakia, Errumania, Bulgaria eta Albania. Handiak ziren bi planen arteko ezberdintasunak, Marshall planaren eta COMECON planaren artekoak, izan ere, AEBen laguntza desinteresatua ez bazen ere, gutxienez, zuzendu zitzairen herrialdeetako ekonomiei garapen askerako bide uzten zien. COMECON osatzen zuten herrialdeek SESBrekiko zuten mendekotasun ekonomikoa erabatekoa zen, askatasun ekonomikoa ez baitzen zilegi. COMECONen barneko merkatal harremanak, berez, trukean oinarritu ziren, kide zen herrialde bakoitzak ekoiztutako soberakinaren arabera. Urteak joan ahala, sobietar planaren ahulezia areagotzen joan zen eta laurogeiko hamarkada amaieran desagertu egin zen, kide ziren herrialdeek komunismoa utzi eta ekonomia kapitalistaren ibilbidearekin bat egin zutenean.

4. Jarri orden kronologikoan eta esan zein urtetan jazo ziren honako gertakari historiko hauek: (1 puntu).

(ariketa kronologikoen orde, terminoak, pertsonaiak edo egoerak dagozkien definizioarekin lotzeko ariketa bat jar liteke).

Misilen krisia Kuban
Europar Batasuneko Ituna sinatzea Maastricht-en.
Berlingo harresiaren erorketa
Weimar-ko Errepublika Alemanian
Krisia Hungarian
Ez erasotzeko itun germanio-sobietarra sinatzea

Erantzuna:

1	Weimar-ko Errepublika Alemanian (1818-1933)
2	Ez erasotzeko itun germanio-sobietarra sinatzea. (1939)
3	Krisia Hungarian (1956)
4	Misilen krisia Kuban (1962)
5	Berlingo harresiaren erorketa (1989)
6	Europar Batasuneko Ituna sinatzea Maastricht-en. (1991)



**PROBAKO GALDEREN ETA EZAGUTZA ADIERAZLEEN ARTEKO
ELKARREKIKOTASUNAK**

Ariketa	Ezagutza-adierazlea
1. ariketa	1.1/1.2/1.3/2.1/
2. ariketa	6.2/6.4/
3. ariketa	1.1/1.2/1.3/2.1/4.1/4.3/6.3/6.4/
4. ariketa	1.1/1.2/4.1/4.2/4.3/6.2/6.4/



PROGRAMAZIOA ETA IKASKETARAKO BALIABIDEAK

• PROGRAMAZIOA

Historia garaikidearen moduluan barrena ibilbide didaktiko hau egiteko, moduluko curriculumak osatzen duten blokeetan, edukietan eta ezagutza-adierazleetan oinarritu gara. Sei eduki-bloke ditu, eta hamasei ikasketa-unitatetan banatu ditugu.

Ikasketa-unitate guztien helburua da, modulu hau egiten duten ikasleek izan dezatela XX. mendean eta XXI.aren hasieran mundu mailan jazotako gertakari politiko, sozial eta ekonomikoen berri, eta uler ditzatela gertakari horien arrazoi eta ondorioak ere. Gertakari horiek espazioan eta denboran zuzen kokatzeko gai izan daitezela ere lortu nahi da. Azkenik, egungo gizarteetan euren iragan hurbileneko arrastakoak interpretatzeko gai izan behar dira.

Gaien hurrenkerari dagokionez, uste dugu moduluaren curriculumean azaltzen zen hurrenkera kronologikoa errespetatzea komeni dela, hots, denboran urrutien kokatzen diren gertakarietatik hasi eta hurbilenekoetara iritsi arte. Zenbaitetan, hurrenkera kronologiko hori errepikatu egiten da espazio-esparru ezberdinetan, hori da mundu komunista eta kapitalistaren bilakaerarekin gertatzen dena, eta gauza bera gertatzen da Txinaren kasuarekin.

Ikasketa-unitate bakoitzean unitatearen ikuspegi orokor bat izateko oinarritzakoak deritzogun kontzeptuak zehazten ditugu. Horrek ez du esan nahi ikasketa-unitatearekin lotuta dauden eta garrantzizkoak irizten diren edukiak gehitu ezin direnik. Ikasketa-unitate bakoitzean kontuan hartu behar da hainbat prozedura eta teknika landu behar direla, ezinbestekoak gertakari historikoen erabateko ezagutza erdiesteko. Hona hemen prozedura eta teknika horiek:

- Mapa historikoen azterketa eta iruzkina.
- Taula eta grafikoaren azterketa eta interpretazioa.
- Kronologiak erabiltzen jakitea eta ardatz kronologikoak interpretatu eta egitea.
- Testu historikoen azterketa eta iruzkina.

Unitate bakoitzari eskainitako denbora, garatu beharreko edukien arabera egokitzen jo duguna da, baina denbora horiek ez dira behin betikoak. Unitate bakoitzeko irakasleen lanak edota amaierako balioespenak lagunduko digute ordu-kopuruak egokiak ote diren ikusten.

Jarraian laburki azaltzen dira ikasketa-unitateak.

EDUKI-BLOKEAK	IKASKETA UNITATEAK	IZENDAPENA	ORDU KOP.
1	IU 1	Nazioarteko harremanak gerra-artearen garaian.	3 ordu
	IU 2	Europako demokrazien krisia totalitarismoaren aurrean.	3 ordu
	IU 3	II. Mundu Gerra eta bere ondorioak:	9 ordu
	IU 4	NBERen eta nazioarteko erakundearen sorrera.	3 ordu
2	IU 5	Multzoen politika eta Gerra Hotza.	9 ordu
3	IU 6	Deskolonizazioa.	6 ordu
	IU 7	Ekialde ertainaren eta mundu islamiarraren gaia.	3 ordu
4	IU 8	Mundu komunista	6 ordu
	IU 9	Europa ekialdeko aldatetako eta SESBren haustura.	6 ordu
	IU 10	Txina.	6 ordu
5	IU 11	Mundu kapitalista.	9 ordu
6	IU 12	Iberoamerika.	3 ordu
	IU 13	Europar Batasunaren sorrera.	9 ordu
	IU 14	Biztanleriaren ezaugarriak.	6 ordu
	IU 15	Zientzia eta teknologia egungo munduan.	3 ordu
	IU 16	Demokrazia eta giza eskubideak.	6 ordu



1. Ikasketa Unitatea: NAZIOARTEKO HARREMANAK GERRA ARTEKO GARAIA (3 ordu)

Ikasketa-unitate honen helburua da ikasleek Lehen Mundu Gerra osteko nazioarteko egoera ulertzea, alegia, potentzia irabazleetako buruek garaituei gerra-konponbide garestiak ezartzen dietenekoa. Ikasketa-unitatearen ardatza da, garai hartan nazioarteko behin betiko egitura bat sortzeko beharra ikusi zela, herrialdeen arteko ezberdintasun eta gatazkak eztabaidatu eta konpontzeko leku izango zena, nahiz eta Nazioen Elkartea erabateko porrota izango den. Mekanismo bat abian jartzearen garrantzia azpimarratu behar da, gaur arte, modu ezberdinetan bada ere, argi geratu baita ezinbestekoa dela.

Unitate honen ondoren, eta herrialdeen arteko gatazkak konpontzeko asmoz sortutako nazioarteko erakundeen hariari jarraiki, 4. ikasketa-unitatea lantzea proposatzen da, lehenengoaren antzekoa baita gaiari dagokionez.

Oinarrizko edukiak:

- Gerraostea: Versallesko Tratatu.
- Locarnoko izpiritua: NE - Nazioen Elkartearen sorrera.
- Nazioen Elkartearen antolakuntza.
- Nazioen Elkartearen xedeak.
- Nazioen Elkartearen amaiera.

2. Ikasketa Unitatea: EUROPAKO DEMOKRAZIEN KRISIA TOTALITARISMOEN AURREAN (3 ordu)

Ikasketa-unitate honen helburua Europako demokraziek hainbat mugimenduri aurre egiteko erakutsitako ahulezia ulertzea izango da, hala nola, nazismoa Alemanian eta faxismoa Italian, eta nola horrek herrialde horien hondamendia ekarriko duen. Ikusiko da nola 1929. urteko depresio ekonomiko handiak diktadore handiak ekarriko dituen, esate baterako, A. Hitler eta B. Mussolini. Era berean, II. Mundu Gerraren ondorio izan ziren aurrekari eta arrazoiak azpimarratuko ditugu. Aipamen berezia egingo zaio Stalin SESBren boterera igotzearen gertakariari.

Oinarrizko edukiak:

- Erregimen faxisten ezaugarriak: Hitler eta Mussolini.
- Alemania, Weimar-ko Errepublikaren porrota.
- Nazionalsozialismoa.
- Nazien alderdia boterean. III. Reich-a.
- Italiako faxismoaren sorrera eta igoera.
- Erromarako martxa.
- Italia faxista.
- Stalinen igoera SESBen.
- Stalinen SESB.

3. Ikasketa Unitatea: II. MUNDU GERRA ETA BERE ONDORIOAK (9ordu)

Ikasketa-unitate honetan zehar II. Mundu Gerra bultzatu zuten arrazoiak, haren bilakaera eta ondorioak emango dira, kontuan hartuz nazioarteko gatazka hori bera izango dela XX. mendearen bigarren erditik aurrera munduak biziko duen egoeraren eragile nagusia. Gaia alderdi guztietatik ukitu behar da, alderdi politikotik, lurraldearen alderditik, alderdi ekonomikotik, militarretik, heriotza kopurua etab. Bereziiki interesgarria da ezagutzea nola osatuko den II. Mundu Gerra ostean nazioarteko ordena berria, eta nola geratuko den mundua multzotan banatuta eta Gerra Hotzean murgilduta.



Oinarrizko edukiak:

- Nazioen Elkartearen porrota.
- Gerra mota berri bat: *Blitzkrieg*.
- II. Mundu Gerra pizteko arrazoiak.
- Gerraren aldiak eta eskenatokiak (1939-1945).
- II. Mundu Gerraren ondorioak.
- Yalta eta Postdameko konferentziak.

4. Ikasketa Unitatea: NAZIO BATUEN ETA NAZIOARTEKO ERAKUNDEEN SORRERA. (3 ordu)

Ikasketa-unitate hau hurrenkera kronologikoari jarraiki ikas daiteke, hots, II. Mundu Gerrari eskainitako unitatearen ostean edota, aurrez ere proposatu dugun moduan, lehenengo unitatearen ostean eman daiteke, horrela ikasleek nazioarteko erakundeei buruzko ezagutza osatzeko, hala nola, dituzten helburuak eta betetzen dituzten funtzioak.

Unitatean zehar azpimarratu nahi da, nazioarteko lankidetza baketsua dela mundu mailan estatuen artean sortzen diren gatazken irtenbide bakarra. Halaber, nazioarteko erakundeei iraganean izan zuten eta egun duten garrantzia azpimarratuko da, munduko elkarbizitzaren oinarrizko puntu direnez.

Oinarrizko edukiak:

- NBE sortzea.
- NBEren xedek eta antolakuntza.
- NBEren mende diren erakundeak.
- NBE XX. mendearen bigarren erdian: Iran-Irak gerra eta Yugoslaviako gerra.
- NBE egungo nazioarteko gatazken aurrean.
- Eskualdekoak diren nazioarteko erakundeak: Amerikako Estatuak Erakundea eta Afrikako Batasuna. Arabiar Estatuak Liga.

5. Ikasketa Unitatea: MULTZOEN POLITIKA ETA GERRA HOTZA (9 ordu)

II. Mundu Gerra amaitzean (1945), herrialde irabazleen arteko hika-mikaren ondorioz mundua bi multzo handitan banatu zen: kapitalista eta komunista; horrela hasi zen Gerra Hotza deiturikoa. Hogeita hamar urte baino gehiagoz luzatu zen testuinguru politiko eta ekonomiko honetan gertaera garrantzitsuak jazo ziren, esaterako, Europako inperio kolonialak desagertu eta kolonia izandakoek independentzia lortu zuten. Hori guztia eta 1973ko krisi ekonomikoa iritsi artean bi multzoek izandako bilakaera aztertuko da ikasketa-unitate honetan. Aipamen berezia egin behar da bi polotako eskema horretatik ihes egiteko egin ziren saiakerak. Azpimarratuko da superpotentziek ez direla aurrez aurre jarriko, baizik eta hirugarren herrialdeen bitartez, dagokion potentziaren laguntza jasota.

Nabarmenduko dugu egungo mundua garai hartan jazotako gertakarien emaitza dela, hein handi batean.

Oinarrizko edukiak:

- Multzoen sorrera. Mundua bipolarizatzea.
- Burdinazko hesia.
- Gerra hotzaren sorburua.
- Truman eta Jdánov dotrinak.
- Bloke militarrek: NATO eta Varsoviako Tratatua.
- Bi blokeen arteko krisi eta gatazka garrantzitsuenak Gerran Hotzean.
- N Norgehiagoka nuklearra.
- Lerrokatu gabekoen mugimendua: 1973ko Algerko Konferentzia.
- Gatazkak, krisiak eta bizikidetza.



6. Ikasketa Unitatea: DESKOLONIZAZIOA (6 ordu)

Ikasketa-unitate honen helburua izango da ikustea nola doazen gainbehera Europaren nagusitasuna eta ideia eurozentrismak eta nola ekiten dioten Asia eta Afrikako herriek Europaren nagusitasunaren aurkako borroka geldiezinari. Era berean, askapen prozesu horrek egungo mapara ekarriko gaituela ikusiko dugu, herrialde berriak eta Hirugarren Mundua delakoa sortuko dira.

Oinarritzko edukiak:

- Prozesu deskolonizatzailea: deskolonizazioaren arrazoiak.
- Mugimendu nazionalisten sorrera.
- 1955eko Bandung-eko Konferentzia.
- Indiaren, Algeriaren eta Kongo belgikarraren kasua.
- Afrika beltzaren deskolonizazioa.
- Azpigarapena eta Hirugarren Mundua.
- Vietnamgo gerra.
- Kubako iraultza.
- Neokolonialismoa.

7. Ikasketa Unitatea: EKIALDE ERTAINAREN ETA MUNDU ISLAMIARRAREN GAIA (3 ordu)

Ikasketa-unitate honetan musulmanen gehiengo handi bat bizi den geografia gune batean estatu judu txiki bat sortzetik ondorioztatutako egoera aztertuko dugu. Izan ere, horixe izan da 50 urte baino gehiagotan eta, are, horixe da egun ere, bertako gatazka armatuen jatorria eta, hala, munduko eskualderik gatazkatsuenetariko bat da.

Oinarritzko edukiak:

- Palestinako arazoa: Palestina 1947 eta 1948an.
- Arabiarren eta israeldarren arteko gerrak (1948-1982).
- Camp David-eko akordioak.
- Libanoko gerrate zibila.
- Pertiako Golkoko Gerra.
- Mundu islamiarra: integrismo islamiarraren gorakada.

8. Ikasketa Unitatea: MUNDU KOMUNISTA (6 ordu)

Ikasketa-unitate honetan ikasiko dugu Sobietar Batasunaren gidaritzapean zegoen blokeko herrialdeek, eta baita Sobietar Batasunak berak ere, gizateriaren etorkizunerako gizarte-eredu bat eraiki nahi zutela, gizarte-mailen arteko borroka gainditua zuen gizarte-eredua. Munduko gune handiek hautatu zuten gizarte-eredu hori. Multzo sozialistak talde homogeen bat bazirudien ere, ezberdintasun eta desadostasun handiak ere baziren, eta horiek ere aztertuko ditugu.

Oinarritzko edukiak:

- Ekialdeko Europa eta Sobietar Batasuna.
- Sobietar esparruan zeuden Europako herrialdeen arteko ezaugarri politiko eta ekonomiko komunak.
- Stalinen SESBetik Gorbachov-era.
- Krushev (1953-1964): Desestalinizazioa.
- Breznev (1964-1982).
- Hungariako krisia, 1956.
- Pragako Udaberria, 1968.



9. Ikasketa Unitatea: EUROPA EKIALDEKO ALDAKETAK ETA SESB-REN HAUSTURA (6 ordu)

Munduaren Historia Garaikidearen azken unitate honen helburua XX. mendearen azken laurdenean munduan izan diren gertakari politiko, ekonomiko eta sozial garrantzitsuenak aztertzea da; izan ere, aipatu gertakariak, gaur egungo egoerarekin duten hurbiltasunagatik, XXI. mendearen hasiera honetan gertatzen ari direnak hobe ulertzen lagunduko digute.

Oinarritzko edukiak:

- Berlingo harresiaren erorketa.
- 1989ko prozesu iraultzaileak eta horien ondorioak.
- Ekialdeko Europaren egungo egoera.
- SESBren haustura.
- Gorbachov (1985-1991): glassnot eta Perestroika.
- 1991ko krisia. Estatu Independenteen Erkidegoaren sorrera.
- Yeltsinen Errusia (1991-1997).
- Afganistan eta Txetxenia.

10. Ikasketa Unitatea: TXINA (6 ordu)

Txinak ia kontinente bat osatzen du berak bakarrik, eta XX. mendean zehar aldaketa handien lekuko izan da, hasi Txinako iraultzatik eta 1949an Mao Tse Tung-ek Txinako Errepublika komunista aldarrikatu zuenetik, gaur egun merkatuko ekonomian sartu den arte, superpotentzia ekonomikoan bihurtuta.

Oinarritzko edukiak:

- Gerrate zibila (1945-1949).
- Mao Tse Tung.
- Aurrerakako jauzi handia eta Iraultza Kulturala.
- Deng Xiao Ping.
- Tiananmengo matxinada.
- Txina gaur egun: politika eta liberalizazio ekonomikoa.

11. Ikasketa Unitatea: MUNDU KAPITALISTA (9 ordu)

Ikasketa-unitate honetan II. Mundu Gerrak nazioarteko ordena ekonomikoa nola aldatu zuen ikusiko dugu, eta nola finkatu zituen trukerako eta merkataritzarako arau berriak mundu mailan. Munduko ordena ekonomikoak sentitu zuen ondorioz funtsezkoena ekialdeko ekonomia sistemetan dolarra sartu izana izan zen. Nagusitasun iparramerikarraz gain, Japonen eta Asia hego-ekialdeko potentzia industrialek bizitutako hazkunde ekonomikoa aztertuko dugu. 1973ko petrolio krisiak munduko ekonomian izandako eragina ere ikusiko dugu.

Oinarritzko edukiak:

- 1929ko burtsako kraka.
- Ameriketako Estatu Batuak eta munduko ordena berria.
- Ipar Ameriketako dolarren nagusitasuna.
- Mendebaldeko Europaren bilakaera.
- Mundu kapitalista 1945 eta 1973. urteen artean.
- 1973ko petrolioaren krisia.
- Japoniako mirari ekonomikoa.
- 1973ko krisiari emandako erantzuna.
- Asiako hego-ekialdean sortutako potentziak: Lau Herensugeak.



12. Ikasketa Unitatea: IBEROAMERIKA (3 ordu)

Ikasketa-unitate honetan lurralde zabal honen ezaugarri orokorrak ikusiko ditugu, nabarmenena politikoki eta, batez ere, ekonomikoki Ameriketako Estatu Batuen mende dagoela.

Oinarrizko edukiak:

- Interbentzionismo amerikarra Iberoamerikan.
- Iberoamerikako ezaugarri sozial eta ekonomikoak.
- AEE - Amerikako Estatuaren Erakundearen sorrera.
- Gai politiko nabarmenenak.
- Iraultza mexikarra eta peronismoa Argentinan.
- Diktadura militarrek Iberoamerikan.

13. Ikasketa Unitatea: EUROPAR BATASUNAREN ERAIKUNTZA (9 ordu)

Azken urteotan bultzada handia eman zaio Europar Batasunaren proiektuari, eta politikoki, ekonomikoki eta sozialki bat egindako Europa errealtate bihurtu da dagoeneko, oztopoak oztopo. Proiektu horren garrantzia handia denez, unitate didaktiko berezia eskaini zaio, helburua bat-egitearen funtsezko ezaugarriak ezagutzea eta europarra izatearen garrantziaz jabetzea baita.

Oinarrizko edukiak:

- Europa eraikitzearen aurrekariak: Schuman Plana.
- EBren eta estatu kideen bat-egite prozesua.
- Erromako Ituna.
- Europako Ekonomia Erkidegoa (EEE).
- Europako Agiri Bakuna (1987).
- Maastricht-eko Ituna (1993).
- EBeko erakundeak.
- Europar Batasunaren zabalkuntzak.
- Europako Konstituzioaren proiektua.

14. Ikasketa Unitatea: DEMOGRAFIAREN EZTANDA (6 ordu)

XX. mendearen azken laurdenean munduko biztanleria 4.000 milioikoa izatera pasa da. Bikoiztu egin zen mende erdi baino gutxiagoan, eta bikoiztu baino gehiago egin zen Asian, Afrikan eta Latin Amerikan, beraz, benetako "eztanda demografikoa" izan zen. Biztanleria ezberdin hazten denez, gun e eta herrialdearen arabera, eta garapen maila ezberdinak daudenez, biztanleria funtsezko puntua da egungo gizarteetan. Ikasketa-unitate honetako edukiak ardatz horien inguruan bideratuko dira.

Oinarrizko edukiak:

- Hirugarren Mundua.
- Iparralde-hegoaldea harremanak.
- Demografiaren ezaugarriak: iparralde eta hegoaldea.
- Hazkundearen arazoak.
- El Cairoko Konferentzia (1994).
- Superpopulazioa eta azpigarapena.
- Biztanleria-mugimenduak mundu mailan: migrazioak.
- Globalizazioa.

15. Ikasketa Unitatea: ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA EGUNGO MUNDUAN (3 ordu)



Bizi garen munduak zientzia eta teknologiaren geroz eta mendekotasun handiagoa du. Ekoizpen prozesuak, elikadura-iturriak, medikuntza, hezkuntza, komunikazioa edota garraioa, horien guztien oraina eta etorkizuna garapen teknologiko-zientifikoarekin dago hertsiki lotuta. Zientziak eta teknologiak modu harrigarrian hobetu dituzte gure bizitza-baldintzak, bizitza-itxaropena nahiz bizitza-kalitatea igo dituzte eta gizakien artean eragiteko moduak bilakatu dituzte. Baina, aldi berean, azterketa serio eta zehatza eskatzen duten arazo eta arriskuak sorrarazi dituzte. Ikerketak eta berrikuntzak ez dute alde aurretik markatutako bide bakar bat hari jarraitzeko, baizik eta are, baloreei buruzko erabakiak dira, hots, giza erabakiak dira, azken batean, lortutako emaitza eta produktuak zehazten dituztenak.

Oinarrizko edukiak:

- Hirugarren industria iraultza
- Zientzia eta teknologiaren aurrerapenak.
- Teknologia berriak.
- Zientzia eta etikaren arteko harremana.

16. Ikasketa Unitatea: DEMOKRAZIA ETA GIZA ESKUBIDEAK (6 ordu)

Giza eskubideak eta demokrazia banaezinak diren bi kontzeptu dira. Demokrazia kontzeptuak hainbat esanahi ditu. 1989. urte arte Europa ekialdeko herrialdeek *herri demokrazia* zirela aldarrikatzen baldin bazuten, XX. mendearen azken hamarkadan, munduko herrialde guztiek Europa mendebaldeko eta Ipar Ameriketako *mendebaldeko demokrazien* eredua onartu dute. Bestalde, azken hogeita bost urteetan hainbat izan dira industrialki aurreratutako gizarteetako eskenatoki publikoan sartutako fenomeno sozial eta politikoak. Gizarte-mugimendu berriak deiturikoak dira, mugimendu feminista, ekologista eta baketsuak, alegia, bai eta alderdi politiko berriak ere, ezker berriko alderdiak deiturikoak eta alderdi berdeak. Mugimendu berriak eta alderdi berriak direla esatean aditzera eman nahi da alde handia dagoela gizarte industrialen garapenean sortutako gizarte-mugimendu eta alderdi tradizionalen modu, metodo eta xedeekin alderatuz gero, batez ere, langile mugimenduekin eta ezker tradizionalarekin alderatuz gero.

Oinarrizko edukiak:

- Giza eskubideak eta egungo erregimen politikoak.
- Demokraziak mendebaldean, Iberoamerikan, Asian eta Afrikan.
- Gizarte-mugimendu berriak: bakezaletasuna, ekologia, GKEak, mugimendu feminista, etab.
- Alderdi berriak: ezker berria eta alderdi berdeak.

Ikasketa Unitateen eta ezagutza-adierazleen arteko elkarrekikotasunak

Adierazi berri ditugun IU bakoitzerako ariketak ezagutza-adierazlearen arabera izango dira, eta horien arteko lotura beheko taulan adierazitakoa da:

Ikasketa Unitatea	IZENDAPENA	EZAGUTZA ADIERAZLEAK
IU 1	Nazioarteko harremanak gerra arteko garaian.	1.1; 1.3; 5.2;
IU 2	Europako demokrazien krisia totalitarismoen aurrean.	1.1;
IU 3	II. Mundu Gerra.	1.1; 5.2;
IU 4	Nazio Batuen eta nazioarteko erakundeen sorrera.	1.1; 1.2; 1.3; 2.1; 5.2; 6.1;
IU 5	Multzoen politika eta Gerra Hotza.	1.1; 1.2; 2.1,
IU 6	Deskolonizazioa.	1.1; 1.2; 2.1; 2.2; 3.1; 3.2; 5.2;
IU 7	Ekialde ertainaren eta mundu islamiarraren gaia.	1.1; 1.2; 2.1; 2.2; 3.3; 3.4; 5.2;



IU 8	Mundu komunista	1.1;1.2;2.1; 2.2; 4.1; 4.2; 4.3; 5.2;
IU 9	Europa ekialdeko aldaketak eta SESBren haustura.	1.1; 1.2; 2.2; 4.1; 4.2; 4.3; 5.2;
IU 10	Txina.	1.1; 1.2; 2.1; 2.2; 4.1; 4.2; 4.3; 5.2;
IU 11	Mundu kapitalista.	1.1; 1.2; 2.1; 2.2; 5.1; 5.2; 5.3; 6.1;
IU 12	Iberoamerika.	1.1; 1.2; 5.2;
IU 13	Europar Batasuna.	1.1; 1.2; 2.1; 5.1; 5.2; 5.3; 6.1; 6.2; 6.3; 6.4;
IU 14	Biztanleriaren eztanda.	1.1; 1.2; 2.1; 5.2; 6.5;
IU 15	Zientzia eta teknologia egungo munduan.	1.1; 1.2; 5.2; 6.5;
IU 16	Demokrazia eta giza eskubideak.	1.1; 1.2; 5.2; 6.1;

Metodologia

Edukiak dira egungo mundua bera nahiz iraganik hurbilenetik gertatutako bilakaera ulertzeko behar diren ezagutza-oinarriak. Horrek ez du esan nahi ikasketa-unitate hauetako edukiak buruz ikasi behar direnik; alderantziz, ideiak ulertuz barneratzen saiatu behar gara (arrazoituz eta modu kritikoan), eta testuinguruari jarraiki denboran nahiz espazioan, betiere orainari erreferentzia eginez, gertakari haiek egungo gizarteetan izan duten eragina kontuan hartuta. Metodologiari dagokionez, prozedurak azpimarratuz (mapak, testuak, kronologia, taulak, grafikoak, etab.) eta ikasketa-unitate guztietan beroiek landuz lortuko dugu aurrez proposatutako xedea.



• IKASKETARAKO BALIABIDEAK

Gai hauek prestatzen laguntzeko (prestaketa autodidakta nahiz zuzendua), material curricularrak erabiltzea ezinbestekoa da, horien artean adierazgarrienak testu-liburuak, kontsulta-liburuak, monografikoak etab. baina betiere ikus-entzunezko materialak eta/edo material digitalak albo batera utzi gabe.

Modulu hau Giza eta Gizarte-Zientzien Batxilergoan ikasitako edukiekin bat dator funtsean eta, zehazki, Mundu Garaikidearen Historia gaiarekin bat, beraz, maila eta gai horretako edozein testu-liburuk balio du aurrez deskribatutako ikasketa-unitateak prestatzeko, nola ikasketa irakaslearen gidaritzapean egiten dugun nola modu autodidaktan egiten dugun.

Kontuan izan behar dugu testu-liburuak modu egituratuan, ordenatuan eta konpentsatuan ematen digula informazioa gai bakoitzari buruz; gainera, edukiak behar bezala ulertzeko behar dituen baliabide eta elementu guztiak ematen dizkio ikasleari. Kontsulta-liburuak, atlasak eta internet helbideak osagarri bikainak izango dira gaiak sakondu nahi dituen ikaslearentzat.

Bibliografia Orokorra

- HOBBSAWN, ERIC: *Historia del Siglo XX*. Madril, *Crítica*, 1995.

Beti da interesgarria, bai irakasleentzat bai ikasleentzat, sona handiko historiagileen testuetara jotzea. Horrelako testua da Eric Hobsbawn-ena, inongo zalantzarik gabe munduko historiagilerik handienetako bat XX. mendean eta XX. mendeaz geroztik. Edozein testu-libururen osagarri ezin hobea. Gai-zerrendako eduki guztiak jorratzen ditu.

- PALMER, R. ETA J. COLTON: *Historia Contemporánea*, Akal. 1980.

Ikasketa-unitateetan azaltzen diren eduki guztiak jorratzen dituen kontsultarako esku-liburu bat da. Irakaslearentzat eta ikaslearentzat interesgarriak diren hainbat eranskin dakartza, hala nola: mapak eta kronologia-etaulak. Testu-liburuaren osagarri on bat da, eta oso erabilgarria da gaiei buruzko ezagutza zabaltzeko.

- PAREDES, JAVIER (koord.): *Historia Universal Contemporánea I: De las Revoluciones Liberales a la Primera Guerra Mundial*. II: *De la Primera Guerra Mundial a Nuestros Días*. Bartzelona, Ariel (1999).

Esku-liburu hau Javier Paredesek koordinatzen du, baina historiagileetako bakoitzak gai bat jorratzen du. Ikasketa-unitateetako eduki guztiak ikas daitezke. Testuko atal bakoitzak dagokion gaia garatzen du eta, aldi berean, bibliografia osagarri bat dakar. Amaieran kronologia-taula erabilgarri bat dakar.

25. ataletik hasi eta 41. atala arte 16 ikasketa-unitateei dagozkien gai guztiak garatzen dira. Azpimarratzekoak dira 28 eta 29. atalak, "Iberoamerika" gaia ematen da, baita 38. atala ere, "Europa eraikitzea" ematen duena.



Testu-liburuak

- BARINAGARREMENTERIA, M^a DOLORES, GARIZURIETA, MARGA, SOLA, CARMEN: Geografia. 2. Batxilergoa Erein argitaletxea (gaztelaniaz eta euskaraz).

Batxilergoan geografia gaia emateko testu-liburua, 13. ikasketa-unitatea ikasteko aproposa, izan ere, argi eta labur azaltzen du unitate hori eta, beraz, ikasleari ongi egituratutako ikuspegi bat ematen dio Europako integrazio-prozesuari buruz. Ikasketa-unitate hori honako web orri honen bitartez ere jorratu daiteke: www.historiasiglo20.org

- GRUPO EDETANIA. GARCÍA ALMIÑANA, Eugenio (koord.): *Historia del Mundo Contemporáneo*. Batxilergoa. Valentzia, ECIR, 1997.
- AA.VV.: *Historia Garaikidea*. Batxilergoa. Zaragoza, Ibaizabal, 1997. (gaztelaniaz eta euskaraz).
Bi testu-liburu horien bitartez, ikasketa-unitate guztietako edukien jarraipena egin dezakete, nola irakasleek nola ikasleek, modu ordenatu eta egituratuan.

Atlas historikoak

- DUBY, GEORGES: Munduko atlas historikoa. Bartzelona, Debate, 1989.

Ikaslearentzat aproposa den atlasa, osatua eta eskuragarria edukiak emateko moduagatik.

- KINDER E HILGEMANN: Munduko atlas historikoa, Madril, Istmo, 2 liburuki.

Atlas hau bi liburukitan dator, oso osatua eta beti erreferentzia on bat ikasketarako. Ikasleek irakasleen laguntza behar dute atlas hau erabiltzen laguntzeko. Guk nahi dugun garaia lantzeko, II. liburukian oinarritu behar gara.

Web orriak

- www.historiasiglo20.org

Interneteko helbide honetan XX. mendeko historiari dagozkion gaien praktikak lantzen dira modu atsegin eta interaktiboan. Tresna ona da, batez ere ikasleentzat, baina baita irakasleentzat ere. Gaiak lantzeko atal onak ditu, hala nola: gaiari buruzko dugun ezagutza zein den jakiteko balio diguten on-line galdeketak, biografiak, testuak, mapak, kronologiak, grafikoak eta estatistikak, etab.

- www.artehistoria.com

Web orri hori hainbat edukiren gainean ematen duen informazio kantitateagatik nabarmentzen da, eta informazioraino eramaten gaituen bilaketa mekanismoa duelako. Web orri hau munduko historiaren entziklopediatzat ere har dezakegu, informazio zehatza lortzeko erabil baitezakegu.